



LG F2400

**Telefonoaren
erabilera-gida.**





F2400 ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA - EUSKARA



Zer egin gailu elektriko eta elektroniko zaharrekín

1. Ezabatutako zaborrontziaren irudia duten produktuek 2002/96/EE zuzentaraua bete behar dute.
2. Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernua edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eraman behar dira.
3. Gailu erabilezinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihestu daitezke.
4. Gailu elektriko eta elektroniko zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.



Sarrera	8	Menuen zuhaitza.....	33
Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak	9	Funtzioak eta aukerak hautatzea	36
F2400-en ezaugarriak.....	13	Profilak	37
Telefonoaren zatiak.....	13	Gaitzea	37
Pantailaren informazioa.....	16	Pertsonalizatzea	37
		Izena aldatzea	38
Hastea.....	18	Deien historia.....	39
SIM txartela eta telefonoaren bateria jartzea.....	18	Galdutako deiak	39
Bateria kargatzea.....	20	Jasotako deiak	39
Kargagailua deskonektatzea.....	21	Egindako deiak	39
Telefonoa piztea eta itzaltzea	21	Azken deiak ezabatzea.....	40
Sarbide-kodeak	22	Deiaren gastuak.....	40
Murrizketa-pasahitza	23	Deiaren iraupena	40
		Deiaren kostuak	40
Funtzio orokorrak.....	24	Kostua konfig.	40
Deiak egitea eta amaitzea.....	24	GPRS inform.....	41
Kontaktuak	29	Deiaren iraupena	41
Sarrerako deien menua.....	29	Datu-bolumenak.....	41
Dei anizkoitzak edo konferentziak	31		

Jokoak eta tresnak.....	42	Guztiak kopiatzea.....	48
Bluetooth-a	42	Guztiak ezabatzea	48
Nire gailuak.....	42	Informazioa	48
Esku libreko gailuak	42	Antolatzailea.....	49
Doikuntza.....	42	Berria gehitzea.....	50
Kalkulagailua	42	Ikustea.....	50
Unitate-bihurgailua.....	43	Guztiak ikustea.....	50
Munduko erlojua	43	Azkena ezabatzea	50
Ahots-grabatzailea.....	43	Guztiak ezabatzea	50
Grabatzea	43	Memoria.....	50
Zerrenda ikustea	43		
Memoriaren egoera	44	Mezuak.....	51
		Mezu berria	51
Antolatzailea.....	45	SMS berria.....	51
Kontaktuak	45	Argazkidun mezuak idaztea	52
Bilatzea	45	Sarrerako postontzia	54
Berria gehitzea.....	45	Zirriborroa	55
Erabiltzaileen taldeak	46	Irteerako postontzia	56
Markaketa bizkorra.....	47	Ahots-postontzia entzutea	56
Telefono-aurkibidea konfiguratzea	47	Informazio-mezua.....	57



Irakurtzea	57	Argazkiak moduaren arabera	64
Gaiak	57	Telefono-aurkibideko argazkiak	64
Txantiloia	57	Konfigurazioa	65
Text message templates	58	Memoriaren egoera	65
Picture message templates	58	Albura ezabatzea	65
Sinadura	58	Automatikoki gordetzea	65
Konfigurazioa	59		
Testu-mezuak	59	Doikuntzak	66
Irudia duten mezuak	59	Alarma	66
Ahots-postontziaren zentroa	60	Eguna eta ordua	66
Informazio-mezua	60	Eguna	66
Push mezuak	61	Egunaren formatua	66
		Ordua	66
Kamera	62	Orduaren formatua	66
Argazkia egitea	62	Berretsi tel.:	67
Hainbat modutara	63	Doikuntzak bistaratzea	67
Jarraituak	63	Hizkuntza	67
Nire albura	63	Deiak konfiguratzea	67
Argazki guztiak	63	Deiak desbideratzea	68
Argazki arruntak	63	Erantzuteko modua	69

Nire zenbakia bidaltzea	69	Gogokoak	75
Deia zain	69	Profilak	75
Minutuen abisua	69	URLra joatea	77
Automatikoki berriz deitzea	69	Cache-a konfiguratzea	77
Segurtasuna konfiguratzea	70	Cookieak doitzea	78
PIN kodea eskatzea	70	Segurtasun-ziurtagiriak	78
Telefonoa blokeatzea	70	Profilak leheneratzea	78
Deiak murriztea	70	Arakatzailaren bertsioa	78
Markaketa finkoa	71	SIM zerbitzua	78
Kodeak aldatzea	72		
Sarea konfiguratzea	72	Deskargak	79
Automatikoki	72	Jokoak & beste zenbait	79
Eskuz	72	Nire jokoak & beste zenbait	79
Gogokoak	72	Profilak	80
Doikuntzak leheneratzea	73	Irudiak	80
GPRS konfiguratzea	73	Soinuak	80
Zerbitzua	74	Osagarriak	81
Internet	75	Datu teknikoak	82
Hastea	75		

Zorionak F2400 telefono mugikor aurrerratu eta trinkoa erosteagatik. Telefonoa komunikazio mugikor digital aurrerratuaren sareekin funtzionatzeko diseinatu da.



Eskuliburu honetan, telefonoaren erabilera eta funtzionamenduari buruzko informazio garrantzitsua dago. Irakurri arretaz informazio guztia, telefonoari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eta telefonoa ongi erabili eta kalterik ez eragiteko. Eskuliburu honetan esplizituki onartzen ez diren aldaketak edo ordezkapenak eginez gero, telefonoaren bermea bertan behera gera daiteke.

Eskuliburu honetan, telefonoa segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko informazio zehatza aurkituko duzu. Irakurri jarraibide sinple hauek, eta gogoratu arauak urratzea arriskutsua eta legez kanpokoa izan daitekeela.

Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egoteari eta SARi (*Specific Absorption Rate*, absorzio espezifikoaren tasa) buruzko informazioa

F2400 modeloko telefono mugikorra irrati-uhinen eraginpean egoteari buruzko segurtasun-araudia betetzeko moduan diseinatu da. Arau horiek pertsona ororen —adina eta osasun-egoera gorabehera— segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absorzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.

- LG telefono-modelo batetik bestera SAR mailan aldea izan badaiteke ere, telefono guztiak irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion zuzentarau garrantzitsuetara egokitzeko diseinatu dira.
- ICNIRP (*International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection*) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SAR balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- DASY4-k telefono-modelo honetarako —entzumen-erabilerarako— neurtu duen SAR baliorik handiena da 1,3 W/kg (10 g).

Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

Oharra: telefono-modelo honetan erabil daitezkeen bateriak, kargagailuak eta osagarriak erabili bakarrik. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan daiteke.

Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak



- Ez desmuntatu telefonoa. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.
- Ez utzi telefonoa etxe-tresna elektrikoetatik hurbil (telebista, irratia edo ordenagailua).
- Ez utzi telefonoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.
- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Telefonoaren estaldura hondatu egin daiteke, binilozko estalkiekin edo bilgarrieekin estaltzen bada.
- Zapi lehorrak erabili unitatearen kanpoko aldea garbitzeko (ez erabili bentzenorik, diluitzailerik, alkoholik edo bestelako disolbatzailerik).
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.

- Ez busti telefonoa eta ez utzi toki hezeetan.
- Osagarriak kontuz erabili (entzulgailuak, adibidez).

Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek interferentziak eragin diezazkietete beste gailu elektroniko batzuei.

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu, baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irradi, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

Bide-segurtasuna

Gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauetara kasu egin.



Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Hitz egin behar baduzu, erabili esku libreko kita, baldin baduzu.
- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, errepidetik irten eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektronikoko batzuetan eragin dezake (autoaren irratiak edo segurtasun-ekipoak).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo instalatuekin. Kalte larriak eragin ditzake gaizki funtzionatzen badu.

Eraispenak

Ez erabili telefonoa eraispenak egiten diren bitartean. Errespetatu murrizketak eta jarraitu indarrean dauden arauak.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan. Ez erabili produktu kimiko edo erregaieetatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoiarik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

Hegazkinetan

Telefono mugikorrek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

Haurrak

Ez utzi telefonoa haurren eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu, eta, irensten badituzte, itotzeko arriskua dute.

Larrialdi-deiak

Beharbada larrialdi-deiak ezingo dira



sare zelular guztietan erabili. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko. Zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari galdetu.

Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste bateria-sistemetan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- Erabili bakarrik LGren bateriak eta kargagailuak. LGren kargagailuak bateriaren bizitza ahalik eta gehien luzatzeko diseinatu dira.
- Ez desmuntatu bateria eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Garbi eduki bateriaren kontaktu metalikoak.
- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean. Bateria ehunka aldiz karga daiteke, hondatu arte.
- Aspaldian erabili ez baduzu, bateria kargatu egin behar duzu, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroegietan, errendimendua oker baitaiteke.

Telefonoaren zatiak

Aurreko ikuspegia

1. Entzungailuen konektorea

2. Gora/behera alboko botoiak



3. Bigarren pantaila

4. Kameraren lentea

5. Flasha

1. Entzungailuen konektorea

- Konektatu hemen entzungailuak.

2. Gora/behera alboko botoiak

- Ordua eta eguna bistaratzen ditu kanpoko pantailan, telefono ireki beharrik izan gabe.
- Tapa irekita dagoenean, deiak egiteko/jasotzeko moduan teklatuaren tonuaren bolumena kontrolatzen du.
- Telefonoz hitz egiten ari zarenean, entzungailuaren bolumena kontrolatzen du.

3. Bigarren pantaila

4. Kameraren lentea

- ❗ **Oharra** Kameraren lentea zikina badago, irudiaren kalitatea okerragoa izan daiteke.

5. Flasha




Alboko ikuspegia



Kamera-tekla

Argazki-kamera aktibatzen du,
eta argazkiak ateratzeko
aukera ematen du

Atzeko ikuspegia



Telefonia irekita



1. Entzungailua

2. 10. Ezkerreko funtzio-tekla / eskuineko

funtzio-tekla: teklen gainean pantailan agertzen den testuak adierazten dituen funtzioak betetzen dituzte tekla hauek.

3. Plangintzetarako tekla: Plan menurako

sarbide bizkorreko tekla da.

4. Bidaltzeko tekla: telefono-zenbakiak

markatzen ditu eta sarrerako deiei erantzuten die. Sarrerako, irteerako eta galdutako azken deietara bizkor sartzeko ere balio du; horretarako, tekla sakatu behar da, modu ez-aktiboan dagoela.

5. Tekla alfanumerikoak: zenbakiak, letrak eta

zenbait karaktere berezi idazteko balio dute.

6. Mikrofonoa: dei batean desaktiba daiteke,

pribatutasuna dela eta.

7. Pantaila nagusia: telefonoaren egoera-

ikonoak, menu-elementuak, web-eko informazioa, irudiak eta beste zenbait elementu bistaratzeko dituzte koloretan.

8. Nabigazio-teklak: menuetan ibiltzeko eta

kurtsorea mugitzeko erabil daitezke.



9. Berresteko tekla: hautatu menuaren aukerak eta berretsi ekintzak.

11. Deskargatzeko tekla: deskarga-menuaren sarbide bizkorra.

12. Amaitzeko/pizteko tekla: dei bat amaitzeko edo ez onartzeko erabiltzen da, baita modu ez-aktibora itzultzeko ere. Luze sakatu telefonoa pizteko eta itzultzeko.

13. Ezabatze tekla: sakatzen den bakoitzean karaktere bat ezabatzen du. Luze sakatu informazio guztia ezabatze. Aurreko pantailara itzultzeko ere erabiltzen da.

14. Funtzio-tekla berezia:

-  : nazioarteko deietarako "+" karakterea sartzen du.
-  : telefono-zenbaki bat idazten ari denean, zenbakien artean zuriune bat sartzen du.

Pantailaren informazioa

Hurrengo taulan telefonoaren pantailan azaltzen diren hainbat adierazle edo ikono deskribatzen dira.

Pantailako ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Sarearen seinalearen intentsitatea adierazten du. *
	Dei bat martxan dagoela adierazten du.
	Beste sare batera igarotzen ari dela adierazten du.
	GPRS (General Packet Radio Service, pakete bidezko irratiz-zerbitzua) zerbitzua erabil daitekeela adierazten du.

Oharra * Elkarriketaren kalitatea estalduraren arabera izango da. Seinalearen potentziak 2 marratxo baino gutxiago baldin baditu, baliteke isiluneak gertatzea, deia etetea edo soinua eskasa izatea. Sarearen egoera adierazten duten marratxoak kontuan izan behar dira, deiak egin baino lehen. Marratxorik ez badago, ez dago estaldurarik. Kasu horretan, ezin da sareko zerbitzuetara sartu (deiak, mezuak, etab.).

Ikonoa	Deskribapena
	Alarma aktibatuta dagoela adierazten du.
	Bateriaren karga-egoera adierazten du.
	Testu-mezu labur bat jaso duzula adierazten du.
	Ahots-mezu labur bat jaso duzula adierazten du.
	Soinu-seinaleak desaktibatuta.
	Profil ozena aktibatu dela adierazten du.
	Profil isila aktibatu dela adierazten du.
	Entzungailuen profila aktibatu dela adierazten du.
	Profil orokorra aktibatu dela adierazten du.
	Push mezuen zerbitzua erabil daitekeela adierazten du.
	Telefonia WAPera sartzen ari dela adierazten du.


Ikonoa	Deskribapena
	GPRS erabiltzen ari dela adierazten du.
	Orrialde seguru batean sartu dela adierazten du.
	Telefono-aurkibidea
	Dei bat desbideratzeko aukera ematen du.
	Bluetooth aktibatuta

SIM txartela eta telefonoaren bateria jartzea

Bateria atera aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.


1. Atera bateriaren tapa.

Sakatu bateria askatzeko irtengunea, lerratu bateriaren tapa telefonoaren beheko alderantz eta atera.



2. Atera bateria.

Heldu bateriaren goiko aldeari eta altxa.




! Oharra Piztuta dagoela telefonoaren bateria ateratzen baduzu, telefonoa honda daiteke.

3. Sartu SIM txartela.

Sartu SIM txartela dagokion tokian. Mugitu SIM txartela dagokion tokirantz. Egiaztatu SIM txartela ongi eta txartelaren urre-koloreko eremua beherantz jarrita ipini duzula. SIM txartela ateratzeko, sakatu pixka bat eta tira egin kontrako noranzkoan.



SIM txartela ipintzeko



SIM txartela kentzeko

⚠ Kontuz! SIM txartelaren metalezko kontaktua oso erraz honda daiteke. Txartela kontu handiz erabili, txartelari dagozkion jarraibideei jarraiki.

4. Sartu bateria.

Lehenbizi, sartu bateriaren beheko aldea bateriari dagokion tokiaren beheko aldean. Bultza bateriaren goiko aldeari, dagokion tokian sartu arte.



5. Ipini berriro bateriaren tapa.


Ipini bateriaren tapa telefonoan eta mugitu ongi jarrita geratu arte (klik entzungo da).





Bateria kargatzea

Telefonoarekin batera emandako kargagailua konektatu baino lehen bateria ipini behar duzu.



1. Gezia zuri begira duzula, irudian ikusten den bezala, sartu kargagailuaren entxufea telefonoaren beheko aldeko hartunean, ongi sartu duzula adierazten duen hotsa entzun arte.
2. Konektatu kargagailuaren beste muturra elektrizitate-hartunera. Telefonoaren kaxako kargagailua bakarrik erabili.
3. Kargatzen ari denean, bateriaren ikonoko marratxoak mugitu egingo dira, eta, karga amaitzean, geldirik egongo dira.


! Kontuz! • Ez behartu konektorea, telefonoa edo kargagailua honda baitaitezke.

- Sartu bateriaren kargagailua korrontearen hartunean, posizio bertikalean.
- Bateria beste herrialde batean kargatu behar baduzu, lehenbizi egiaztatu korronte egokia lortzeko entxufean egokigailurik ipini behar duzun.
- Ez kendu bateria edo SIM txartela telefonoa kargatzen ari den bitartean.

- ! Abisua**
- Deskarga elektrikoak edo suteak eragozteko, deskonektatu elektrizitatearen kablea eta kargagailua ekaitz elektrikoak daudenean.
 - Ez ukitu bateria ertz zorrotzak dituzten elementuekin (animalien hortzak edo erpeak). Sutea eragin daiteke.
 - Ez egin deirik eta ez erantzun deiei telefonoa kargatzen ari den bitartean; izan ere, zirkuitulaburra gerta daiteke edo deskarga elektrikoak edo sute eragin daiteke.

Kargagailua deskonektatzea

1. Telefonoa kargatutakoan, bateria-ikonoan mugitzen ari diren barrak gelditu eta '¡Completa!' azaltzen da pantailan.
2. Kendu kargagailuaren entxufea eta telefonotik deskonektatzeko, sakatu alboko botoiei (ikus irudia).



❗ **Nota** • Telefonoa erabili aurretik, ziurta ezazu bateria erabat kargatuta dagoela.

- Ez atera bateria edo SIM txartela telefonoa kargatzen ari den bitartean.
- Bateria ongi kargatuta ez badago, itzali telefonoa, piztu berriz telefonoa pizteko teklarekin eta, gero, kargatu bateria berriro. Bateria atera eta berriz sartu ondoren, kargatu bateria

Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa piztea

1. Instalatu bateria kargatua telefonoan. Bateria kargatuta ez badago, sartu telefonoan eta konektatu kanpoko elikadura-iturri batera (bidaiaarako kargagailua, pizgailu-kargagailua edo automobilerako esku libreko kit bat).
2. Sakatu  segundo batzuetan, LCD pantaila piztu arte.
3. **Solicitud PIN** aukeraren egoeraren arabera, baliteke piztean PIN kodea eskatzea.

Telefonoa itzaltzea

1. Sakatu  segundo batzuetan, LCD pantaila itzali arte.



Sarbide-kodeak

Sarbide-kodeak erabil ditzakezu, telefonoa baimenik gabe inork erabil ez dezan. Sarbide-kodeak (PUK eta PUK2 kodeak salbu) [7-5-5 menuko] **Cambiar código** funtzioa erabiliz alda daitezke (ikus 72. orrialdea).

PIN kodea (4-8 digitu)

PIN kodea (identifikazio pertsonaleko zenbakia) SIM txartela baimenik gabe erabiltzetik babesten du. PIN kodea SIM txartelarekin batera eman ohi da. **Solicitar código PIN** aukera aktibatuta badago, telefonoak kode hau eskatuko du pitzen den bakoitzean. **Solicitar código PIN** aukera desaktibatuta badago, telefonoa zuzenean konektatuko da sarera PIN koderik gabe.

PIN2 kodea (4-8 digitu)

PIN2 kodea —SIM txartel batzuekin ematen dute— funtzio batzuetara sartzeko behar izaten da, hala nola **Aviso de gastos de llamada eta Número de marcación fija** aukeretara. Funtzio horiek SIM txartelak barne hartzen baditu erabili ahal izango dira soilik. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu sare-operadorea.

PUK kodea (4-8 digitu)

PUK kodea (PIN kodea desblokeatzeko kodea) blokeatuta dagoen PIN kode bat aldatzeko behar da. PUK kodea SIM txartelarekin batera ematen da. Eman ez badizute edo galdu baduzu, jarri harremanetan dagokizun zerbitzu-hornitzailearekin hari eskatzeko.

PUK2 kodea (4-8 digitu)

PUK2 kodea batzuetan SIM txartelarekin batera ematen da eta blokeatutako PIN2 kodea aldatzeko behar izaten da. Kodea galdu egin baduzu, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasun-kodea (4-8 digitu)

Segurtasun-kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzetik babesten du. Lehenespen gisa, kodea '0000' da. Telefonotik sarrerak ezabatzeko eta **Reiniciar config.** menua aktibatzeko erabiltzen da. Gainera, nahitaez erabili behar da telefonoaren blokeo-funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko, telefonoa baimenik gabe erabil ez dadin. Lehenespen gisa jarritako balioa **Conf. seguridad** menuatik alda daiteke.



Murritzeta-pasahitza

Restricción de llamadas funtzioa erabiltzeko murritzeta-pasahitza behar da. Sare-operadoreak zerbitzu hau kontratatzeko behar den pasahitza emango dizu. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 70. orrialdean.

Deiak egitea eta amaitzea

Dei bat egitea

1. Ziurtatu telefonoa piztuta dagoela.
2. Sartu telefono-zenbakia, tokiko aurrezenbaki eta guzti.
 Sakatu () tekla zenbaki osoa ezabatzeko.
3. Sakatu bidaltzeko tekla () zenbakira deitzeko.
4. Amaitutakoan, sakatu () edo eskuineko funtzio-tekla.

Bidaltzeko teklarekin dei bat egitea

1. Deiak jasartzeko/egiteko moduan, sakatu bidaltzeko tekla () eta sarrerako, irteerako eta galdutako azken deien telefono-zenbakiak azalduko dira.
2. Hautatu zenbakietako bat gora/behera nabigazio-teklak erabiliz. 
3. Sakatu 

Nazioarteko deiak egitea

1. Eduki  tekla sakatuta nazioarteko aurrezenbakia sartzeko. '+' karaktereak automatikoki hautatzen du nazioarteko sarbide-kodea.
2. Sartu herrialdeko aurrezenbakia, tokiko aurrezenbakia eta telefono-zenbakia.
3. Sakatu 

Dei bat amaitzea

Deia bukatutakoan, sakatu () tekla.

Kontaktuen zerrendatik dei bat egitea

Maiz erabiltzen dituzun telefono-zenbakiak eta izenak SIM txartelaren eta telefonoaren memorian jaso ditzakezu. Zenbaki bat markatzeko kontaktuen zerrendako izen bat hautatu besterik ez duzu egin behar.



Bolumena doitzea

Dei batean entzungailuaren bolumena doitu nahi baduzu, erabili alboko tekla (). Bolumena igotzeko sakatu alboko goiko tekla eta bolumena jaisteko alboko beheko tekla.

❗ **Oharra** Deiak egiteko/jasotzeko moduan, teklatuaren bolumena doitzeko alboko tekla sakatu behar dituzu.

Dei bati erantzutea

Norbaitek deitzen zaituenean, telefonoak joko du, eta pantailaren erdialdean dagoen telefonoaren ikonoak dir-dir egingo du. Dei-egilea identifika badaiteke, haren telefono-zenbakia (edo izena eta irudia, telefono-aurkibidean badaude) bistaratuko da.

1. Dei bati erantzuteko, ireki telefonoaren tapa, erantzun gisa **Abrir tapa** ezarri bada. Ikus 69. orrialdeko [7-4-2 menua] informazio gehiago lortzeko.

❗ **Nota** Erantzun gisa edozein tekla sakatzea ezarri baduzu (ikus 69. orrialdea), deiari erantzuteko edozein tekla saka dezakezu,  eskuineko funtzio-tekla izan ezik.

- ▶ Sarrerako dei bat ez onartzeko, sakatu luze alboko tekletako bat, telefonoa ireki gabe.
- ▶ Telefono-aurkibidea edo bestelako menu-aukerak erabiltzen dituzun bitartean, deiari erantzun diezaiekezu.

2. Deia amaitzeko, itxi tapa edo sakatu  tekla.

Bibrazio-modua (azkarra)

Bibrazio-modua aktibatzeko, sakatu luze ezkerreko  nabigazio-tekla telefonoa ireki ondoren.

Seinalearen indarra

Seinalearen indarra egiaztatu dezakezu telefonoaren LCD pantailan azaltzen den () seinale-adierazlearen bitartez. Seinalearen indarra aldakorra izan daiteke, eraikinen barnean batez ere; hori gertatuz gero, jarri leihoaren ondoan seinalearen indarra hobetzen den ikusteko.



Testua idaztea

Telefonoaren teklatura erabil dezakezu karaktere alfanumerikoak sartzeko. Adibidez, testua sartu behar izaten da telefono-aurkibidean izenak gordetzeko, mezu bat idazteko, agur pertsonal bat sortzeko edo egutegian gertakizunen plangintzak egiteko.

Testua idazteko modu hauek ditu telefonoak:

T9 modua

Modu honi esker, hitzak letra bakoitzeko tekla bakarra sakatzuz idatz ditzakezu. Teklatuko tekla bakoitzak letra bat baino gehiago du. T9 moduak automatikoki konparatzen ditu sakatutakoak barneko hiztegi batekin, hitz zuzena zein den zehazteko; beraz, modu honekin tekla gutxiago sakatu behar dira ohiko ABC moduan baino. Testu prediktiboaren modua ere deitzen zaio.

ABC modua

Idatzi nahi duzun letrari dagokion tekla sakatuta idazten da modu honetan. Tekla behin, bitan, hirutan edo gehiagotan sakatu behar duzu, pantailan nahi duzun letra azaldu arte.


123 modua (zenbakien modua)

Sartu zenbakiak zenbakiko teklak behin sakatuta. Testua sartzeko eremu batean 123 modura pasatzeko, sakatu  tekla.

Testua idazteko modua aldatzea

1. Karaktereak sartzeko aukera ematen duen eremu batean zaudenean, testua idazteko moduaren adierazlea azalduko da pantailaren beheko eskuineko ertzean.

Testua idazteko modua





2. Testua sartzeko modua aldatzeko, sakatu .
Edozein unean testua idazteko zein modutan zauden kontsultatu ahal izango duzu; horretarako, ikus pantailaren beheko eskuineko ertza.

► T9 modua erabiltzea

Testua sartzeko T9 sistema prediktiboaren bidez, gutxieneko pultsazio-kopuruarekin erraz sar daitezke hitzak. Teklak sakatzean, telefonoak ustez sartzen ari zaren karaktereak bistaratzen ditu, barnean duen hiztegian oinarrituta. Hiztegiara hitz berriak ere sar ditzakezu. Letra berriak gehitzen diren neurrian, hitza aldatuz joango da eta hiztegian idatzitakoarekin antza gehien duen hitza bistaratuko da.

1. Testua idazteko T9 sistema prediktiboan hitzak osatzeko letrak sartzeko, sakatu -tik -ra dauden tekla. Idatzi nahi duzun letra bakoitzeko behin bakarrik sakatu tekla bakoitza.
- Hitza aldatu egiten da letrak idatzi ahala; beraz, ez kasurik egin pantailan azaltzen denari,

tekla guztiak sakatu arte.

- Amaieran hitza zuzena ez bada, sakatu nabigazio-tekla beheantze behin edo gehiagotan, aukeran dauden gainerako hitzak kontsultatzeko.

Adibidea:

Sakatu **Home** idazteko.

Sakatu [beheko nabigazio-tekla] **Inme** idazteko.

- Aukerako hitzen zerrendan idatzi nahi duzun hitza azaltzen ez bada, gehitu zerrendara ABC modua erabiliz.

- T9 moduaren hizkuntza aukeratzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Opciones] eta, gero, hautatu **Idiomas T9**. Hautatu T9 modurako erabili nahi duzun hizkuntza. T9 modua desaktibatzeko, hautatu **T9 desactivado**. Telefonoak T9 modua izango du aktibatuta, lehenespenez gisa.

2. Sartu hitz osoa, edozein letra editatu edo ezabatu baino lehen.

Funtzio orokorrak

3. Osatu hitz bakoitza zuriunearekin  tekla sakatuta. Letrak ezabatzeko, sakatu  .Hitz osoak ezabatzeko, luze sakatu .

Oharra Testua idazteko modutik idatzitako testua gorde gabe irteteko, sakatu  eta telefonoa deiak egiteko/jasotzeko modura itzuliko da.

ABC modua erabiltzea

 -  bitarteko tekla erabili testua idazteko.

- 1. Sakatu letrari dagokion tekla:
 - Behin sakatuta, lehenbiziko letra azalduko da
 - Bitan sakatuta, bigarren letra azalduko da
 - Eta horrela, nahi duzun letra bistaratu arte.
- 2. Zuriune bat sartzeko, sakatu  tekla behin. Letrak ezabatzeko, sakatu  tekla, eta, pantaila osoa ezabatzeko, luze sakatu .

Oharra Kontsultatu taula hau, tekla alfanumerikoekin erabil ditzakezun karaktereei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero.

Tekla	Karaktereak, bistarutzen diren ordenaren arabera	
	Letra larriak	Letra xeheak
	., / ? ! - : ' " 1 @	., / ? ! - : ' " 1 @
	A B C 2 Ä Å Á Â Ã Ä Æ Ç	a b c 2 ä å á â ã ä å æ ç
	D E F 3 É Ê Ë Ì	d e f 3 è é ê ë
	G H I 4 Î Ï Ñ Ò	g h i 4 î ï ñ ò
	J K L 5	j k l 5
	M N O 6 Ñ Ò Ó Ô Õ Ö Ç	m n o 6 ñ ò ó ô õ ö ç
	P Q R S 7 Þ Ñ	p q r s 7 þ ñ
	T U V 8 Û Ü Ý Þ	t u v 8 û ü ý þ
	W X Y Z 9	w x y z 9
	zuriunea, 0	zuriunea, 0



► 123 modua erabiltzea (zenbakizko modua)

123 moduak zenbakiak testu-mezuan sartzeko aukera ematen du (adibidez, telefono-zenbaki bat).

Kontaktuak

Telefono-zenbakiak eta dagozkien izenak gorde ditzakezu SIM txartelaren memorian, eta 255 zenbaki eta izen telefonoaren memorian.

SIM txartela eta telefonoa era berean erabiltzen dira **Contactos** menuan (ikus 45-49 orrialdeak, informazio gehiago lortzeko).

Sarrerako deien menua

Telefonoak hainbat kontrol-funtzio eskaintzen ditu, dei batean zehar erabil daitezkeenak. Dei batean funtzio horiek erabiltzeko, sakatu [Opcs.] ezkerreko funtzio-tekla.

Hitz egiten ari zaren bitartean

Dei batean telefonoaren pantailan bistaratzen den menua ez da deiak egiteko/jasotzeko moduan azaltzen den menu nagusi lehenetsia. Ondoren deskribatzen dira aukerak.

Bigarren deia egitea

Telefono-aurkibidean zenbaki bat bilatu eta markatu daiteke beste dei bat egiteko; horretarako, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta hautatu **Buscar**. Dei batean markatutako zenbaki bat telefono-aurkibidean gordetzeko, sakatu eskuineko funtzio-tekla eta, gero, aukeratu **Añadir nuevo**.

Bi dei txandakatzea

Bi dei txandakatzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Cambiar**.



Dei bati erantzutea

Telefonoak jotzean dei bati erantzuteko, sakatu  tekla. Hitz egiten ari zarela, telefonoak sarrerako dei bat duzula jakinaraz diezazuke; horretarako, txirrin bat egiten du entzungailuan eta adierazle bat azaltzen da pantailan, beste **dei bat zain** duzula adierazteko. Funtzio horri deia zein deitzen zaio, eta sareak onartzen badu bakarrik erabili daiteke. Funtzio hau aktibatzeke eta desaktibatzeke argibide gehiago lortzeko, ikus Deia zain [7- 4- 4 menua] 69. orrialdean.

Lamada en espera funtzioa aktibatuta badago, lehenbiziko deia zain utzi eta bigarrenari erantzun diezaiokezu; horretarako, sakatu  edo hautatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero, **Descolgar y responder**. Uneko deia amai dezakezu eta zain zegoen deiari erantzun diezaiokezu ezkerreko funtzio-tekla sakatuta eta, gero, **Finalizar y Responder** aukeratuta.

Dei bat ez onartzeko

Sarrerako dei bati ez erantzuteko, sakatu  tekla.

Deiaren erdian bazaude, sarrerako dei bat ez onartzeko sakatu [Menú] ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu

Conferencia/ Rechazar edo sakatu  tekla.

Mikrofonoa desaktibatzea

Dei bat duzenean, mikrofonoa desaktiba dezakezu [Menú] tekla sakatuta eta gero **Silencio activado** aukeratuta. Aukera hori desaktibatu eta mikrofonoa berriz aktibatzeke, hautatu **Silencio desactivado**. Telefonoak mikrofonoa desaktibatzeke aukera aktibatuta baldin badu, deitzen duen pertsonak ez dizu entzungo, baina zuk bai hari.

Dei batean DTMF tonuak aktibatzea

DTMF tonuekin telefonogune automatizatua erabil dezake telefonoak. Dei batean DTMF tonuak aktibatzeke sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Activar DTMF**, eta desaktibatzeke, egin prozedura berbera.



Dei anizkoitzak edo konferentziak

Dei anizkoitzen edo konferentzien zerbitzuarekin, aldi berean pertsona batekin baino gehiagorekin hitz egin dezakezu, sare-operadoreak funtzio hau onartzen badu. Dei bat aktibatuta badago, beste bat zain badago eta biei erantzuten bazaie bakarrik ezar daiteke dei anizkoitz bat. Dei anizkoitz bat ezarritakoan, deia ezarri duen pertsonak deiak gehitu, deskonektatu edo kanpoan utz ditzake (alegia, konferentziatik dei bat amaitu gabe kanpo uztea). Aukera horiek guztiak sarrerako deien menuan aurkituko dituzu. Gehienez, bost pertsonak har dezakete parte dei anizkoitz batean. Deia hasitakoan, zuk izango duzu kontrola eta zuk bakarrik gehitu ahal izango dituzu pertsona gehiago.

Bigarren deia egitea

Mugikorretik hitz egiten ari zarela bigarren deia egiteko, sartu bigarren zenbakia eta sakatu  tekla. Bigarren deia ezartzean, lehena zain geratzen da automatikoki.

Bi dei txandakatze, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Cambiar**.

Konferentzia ezartzea

Utzi dei bat zain, eta, beste deia aktibatuta dagoen bitartean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta hautatu **Conferencia/Unir**.

Konferentzia atxikitzea

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero, hautatu **Conferencia/Retener todas**.

Zain dagoen konferentzia aktibatzea

Sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta, gero, hautatu **Conferencia/Unir**.

Konferentziari deiak gehitzea

Lehen ezarritako konferentzia bati dei bat gehitzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla eta aukeratu **Conferencia/Unir**.



Konferentzia bateko parte-hartzaileak bistaratzea

Konferentzia bateko parte-hartzaileen zenbakiak telefonoaren pantailan ikusteko, erabili gora/behera nabigazio-teklak.

Konferentzia batean dei pribatu bat egitea

Konferentziako parte-hartzaileetako batekin dei pribatu bat izan nahi baduzu, bistaratu parte-hartzailearen zenbakia eta sakatu ezkerreko funtzio-tekla. Hautatu **Conferencia/Privada**, gainerako deiak zain uzteko.

Konferentzia amaitzea

Deia amaitzeko, sakatu  tekla. Konferentzia amaitzeko, sakatu funtzio anitzeko ezkerreko tekla eta hautatu **Conferencia/ Fin llamadas**. Dei guztiak (aktibatuta zein zain daudenak) amaitu egingo dira.

1. Perfiles (37. orrialdea)

- 1 Sola vibrac.
- 2 Silencio
- 3 General
- 4 Fuerte
- 5 Auriculares

2. Historial de llamadas (39. orrialdea)

- 1 Llamadas perdidas
- 2 Llam. recibidas
- 3 Llam. enviadas
- 4 Eliminar últimas llamadas
- 5 Gastos de la llamada
- 6 Info GPRS

3. Jeux et outils (42. orrialdea)

- 1 Bluetooth
- 2 Calculadora
- 3 Conver. unidad
- 4 Reloj mundial
- 5 Grabador de voz
- 6 Memory Status

4. Organizador (45. orrialdea)

- 1 Contactos
- 2 Planificador
- 3 Memoria



5. Mensajes (51. orrialdea)

- 1 Nuevo mensaje
- 2 Buzón entrada
- 3 Borrador
- 4 Buzón salida
- 5 Escuchar buzón de voz
- 6 Mensaje de información
- 7 Plantilla
- 8 Configuración

6. Cámara (62. orrialdea)

- 1 Hacer foto
- 2 En modos
- 3 Continuo
- 4 Mi álbum
- 5 Configuración

7. Ajustes (66. orrialdea)

- 1 Alarma
- 2 Fecha y Hora
- 3 Conf. Telf.
- 4 Conf. llamadas
- 5 Conf. seguridad
- 6 Config. red
- 7 Restablecer ajustes
- 8 Config, GPRS



8. Servicio (74. orrialdea)

- 1 Internet
- 2 Servicio SIM


9. Descargas (79. orrialdea)

- 1 Juegos & más
- 2 Imágenes
- 3 Sonidos

Funtzioak eta aukerak hautatzea

Telefonoa pertsonalizatzeko aukera eskaintzen dizuten funtzio multzoa dauka telefonoak. Menu eta azpimenuetan daude funtzio horiek, eta bi funtzio-teklen bidez () eta () sar zaitezke horietara. Menu eta azpimenu bakoitzak funtzio jakin bateko aukerak ikusteko eta aldatzeko aukera ematen du.

Tekla hauen funtzioak menuaren arabera aldatzen dira. Pantailaren beheko lerroan, tekla bakoitzaren gainean azaltzen den funtzioa izango dute.



Sakatu funtzio anitzeko eskuineko tekla dagokion menura sartzeko.

Sakatu funtzio anitzeko ezkerreko tekla dagokion menura sartzeko.

Profilen menuan telefonoaren tonuak doitu eta pertsonaliza ditzakezu, egoeren, inguruneen edo erabiltzaile-taldeen arabera.

Aurrez zehaztutako sei profil daude: **Sólo vibrac.**, **Silencio**, **General**, **Fuerte** eta **Auriculares**. Profil guztiak pertsonaliza daitezke.

Sakatu  menu-tekla eta hautatu **Perfiles** nabigazio-teklekin.

Gaitzea

1-x-1 menua

1. Profilen zerrenda azaltzen da.
2. Joan aktibatu nahi duzun profilerara eta sakatu [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla.
3. Gero, hautatu **Habilitar**.

Pertsonalizatzea

1-x-2 menua

Profilen zerrendan zaudela, nahi duzun profilerara joan.

 Ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla sakatu ondoren, aukeratu Personalizar. Profila konfiguratzeko menua irekiko da, eta aukera hauek pertsonaliza daitezke.

- ▶ **Tipo de alerta de llamada:** sarrerako deien alerta-mota ezartzen du.
- ▶ **Tono de timbre:** zerrendako txirrin-tonua aukeratzen du.
- ▶ **Vol. timbre:** dei-txirrinaren bolumena ezartzen du.
- ▶ **Alerta mens.:** mezuen alerta-mota ezartzen du.
- ▶ **Tono de mensaje:** mezuen alerta-txirrina hautatzen du.
- ▶ **Tono teclado:** teklatuaren tonua hautatzen du.
- ▶ **Volumen teclado:** teklatuaren tonuaren bolumena ezartzen du.
- ▶ **Tono de tapa:** taparen tonua ingurunearen arabera ezartzeko aukera ematen du.
- ▶ **Vol. efectos sonido:** soinu-efektuen bolumena ezartzen du.
- ▶ **Vol enc y apag:** telefonoa piztean edo itzaltzean txirrin-tonuaren bolumena ezartzen du.



► **Resp. autom.:** telefonoari entzungailuak konektatu bazaizkio bakarrik aktiba daiteke funtzio hau.

- **Desactivado:** telefonoak ez du zuzenean erantzungo.
- **Después de 5 seg.:** telefonoak automatikoki erantzungo du 5 segundoren buruan.
- **Después 10 seg.:** telefonoak automatikoki erantzungo du 10 segundoren buruan.

Izendatu

1-x-3 Menua

Profil baten izena aldatu eta nahi duzun izena ipin diezaiokezu.

❗ **Oharra** Sólo vibración, Silencio eta Auriculares profilen izenak ezin dira aldatu.

1. Profil baten izena aldatzeko, joan profil-zerrendan aldatu nahi duzun profileraino eta,  ezkerreko funtzio-tekla edo OK tekla sakatutakoan, hautatu Cambiar nombre.
2. Idatzi izena eta sakatu Ok tekla edo ezkerreko funtzio-tekla  [Aceptar].

Galdutako, jasotako eta egindako deien erregistroa ikus daiteke sareak zerbitzuaren barnean linea identifikatzeko zerbitzua (ILL) onartzen badu.

Deiari dagozkion zenbakia eta izena (posible bada) datarekin eta orduarekin batera bistaritzen dira. Iraupenak ere ikus ditzakezu.

Galdutako deiak 2-1 menua

Aukera honek hartu ez dituzun azken 10 deiak ikusteko aukera ematen du. Hau ere egin dezakezu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea
- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea

Jasotako deiak 2-2 menua

Aukera honek jaso dituzun azken 10 deiak ikusteko aukera ematen du. Hau ere egin dezakezu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea
- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea

Egindako deiak 2-3 menua

Irteerako azken 20 deiak (egindakoak edo saiaturakoak) ikusteko aukera ematen du aukera honek. Hau ere egin dezakezu:

- Zenbakia ikusi (posible bada), eta zenbaki horretara deitzea edo direktorioan gordetzea
- Zenbakiarentzat beste izen bat sartzea eta biak direktorioan gordetzea
- Zenbaki horretara mezu bat bidaltzea
- Deia zerrendatik ezabatzea



Azken deiak ezabatzea 2-4 menua

Galdutako deien, egindako deien edo bidalitako deien eta dei guztien zerrendak batera ezabatzeko aukera ematen du.

Deiaren gastuak 2-5 menua

Deiaren iraupena 2-5-1 menua

Sarrerako eta irteerako deien iraupena ikus dezakezu, baita deien denborak leheneratu ere. Menu honen barnean, kronometro hauek erabil daitezke:

- **Última llam.:** azken deiaren iraupena.
- **Todas llam.:** kronometroa azken aldiz hasieratu zenetik egindako eta jasotako deien iraupen osoa.
- **Llam. recibidas:** egindako deien iraupena.
- **Llam. enviadas:** irteerako deien iraupena.

- **Restablecer:** dei guztien iraupena ezabatzeko aukera ematen du; horretarako, sakatu  [Si] funtzio anitzeko ezkerreko tekla.

Deiaren kostuak 2-5-2 menua

Funtzio honen bidez, azken deiaren eta dei guztien kostua eta gainerako kostua ikus daiteke. Kostua berriz zenbatzen hasteko PIN2 kodea sartzeko eskatuko dizu.

Kostua konfig.

(SIM txartelaren arabera) 2-5-3 menua

- **Establ. tarifa:** moneta-mota eta unitatearen prezioa zehatz ditzakezu. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzaileekin unitateen prezioak lortzeko. Menu honetan moneta edo unitatea aukeratzeko, PIN2 kodea sartu behar duzu.
- **Def. crédito:** deien kostuaren muga ezar dezakezu sare-zerbitzu honekin, hautatutako gastu-unitatearen arabera. **Leer** hautatzen baduzu, gainerako unitateen kopurua bistaratzen da. **Cambiar** hautatzen baduzu, gastuaren muga alda daiteke.



- **Mostr. auto:** sare-zerbitzu honen bidez, automatikoki ikus daiteke azken deien kostua. **Activ.** aktibatuta badago, azken deiaren kostua ikus dezakezu, deia amaitutakoan.

GPRS inform.

2-6 menua

GPRS bidez transferitutako datu-kopurua ikus dezakezu. Gainera, linean zenbat denboran dagoen ikus dezakezu.

Deiaren iraupena

2-6-1 menua

Azken deiaren eta dei guztien iraupena ikus dezakezu, baita denbora-kontagailuak hasieratu ere.

Datu-bolumenak

2-6-2 menua

Bidalitako eta jasotako datuen edo datu guztien bolumenak ikusi eta guztiak hasieratu ditzakezu.



Bluetooth

3-1 menua

Bluetooth sistemari esker, elkarrengandik hurbil dauden gailu eramangarri, periferiko eta ordenagailu bateragarriak elkarren artean zuzenean haririk gabe komunikatu daitezke. Telefono honek Bluetooth konexioa sartuta du, eta, horri esker, telefonoekin, software aplikazioekin eta teknologia horrekin batera daitezkeen beste sistemekin konektatu daitezke.

Nire gailuak

3-1-1 menua

Telefonoan Bluetooth-arekin batera daitezkeen gailu guztiak ikus daitezke.

Esku libreko gailuak

3-1-2 menua

Bluetooth duten telefonoekin bateragarriak diren esku libreko gailuen zerrenda lor daitezke.

Doikuntzak

3-1-3 menua

Bluetooth-ekin batera daitezkeen gailu berriak erregistratu daitezke. Gailua gehituta baduzu, pasahitza bat sartuta bila dezakezu.

Kalkulagailua

3-2 menua

Kalkulagailuak funtzio estandarrek ditu: +, -, x, ÷ (**batuketa**, **kenketa**, **biderketa** eta **zatiketa**).

1. Sartu zenbakiak zenbakien teklak sakatuta.
2. Erabili nabigazio-teklak kalkuluak egiteko zeinua hautatzeko.
3. Gero, zenbakiak sartu.
4. Sakatu  [Resul.] emaitza ikusteko.
5. Sakatu  [Borrar] edo sartu zenbakiak, aurreko prozedura berriz egiteko.
6. Kalkulagailutik irteteko, sakatu  [Volver].

Oharra Erroreak edo pantaila osoa ezabatzeko, erabili  tekla.  tekla sakatzen baduzu, zenbaki negatiboa sar dezakezu.  tekla sakatzen baduzu, zenbaki hamartarra ere sar dezakezu.



Unitate-bihurgailua

3-3 menua

Hainbat neurriren unitateak alda ditzakezu. Lau neurri-mota daude: **Longitud**, **Area**, **Peso** eta **Volumen**.

1. Lau neurri horietako bat hautatzeko, sakatu  [Unidad] tekla.
2. Hautatu balio estandarra hauekin: , .
3. Bihurtu nahi duzun unitatea aukeratu hauekin:  eta .
4. Nahi duzun unitatearen balio bihurtua egiazta dezakezu. Zenbaki hamartarra sartzeko, sakatu .

Munduko erlojua

3-4 menua

Munduko hiri nagusiei dagozkien erlojuak ikus ditzakezu.

1. Hautatu ordu-eremuari dagokion hiria tekla hauekin:  eta .
2. Hautatutako hiriari dagokion ordua ezartzeko, sakatu  [Conf.].

Ahots-grabatzailea

3-5 menua

Ahots-oharren funtzioarekin, gehienez 10 ahots-mezu graba ditzakezu, 20 segundokoak gehienez.

Grabatzea

3-5-1 menua

Grabador de voz menuan graba ditzakezu ahots-oharrak.

1. Grabazioa hasitakoan, Grabando mezua eta amaitzeko falta den denbora bistaratzen dira.
2. Grabazioa amaitu nahi baduzu, sakatu  [Guardar].
3. Idatzi ahots-oharraren izenburua eta sakatu  [Aceptar].

Zerrenda ikustea

3-5-2 menua

Telefonoak ahots-oharren zerrenda bistaratzen du. Grabatutako ahots-oharrak erreproduzitu (**Reproducir**) eta ezabatzeko (**Borrar**) aukera duzu.



Memoriaren egoera

3-6 menua

Ataletan libre dagoen tokia eta erabilitako memoria ikusteko aukera ematen du.

Kontaktuak

4-1 menua

- ❗ **Oharra** Deiak egiteko/jasotzeko moduan, sakatu  [Contactos] eskuineko funtzio-tekla, zuzenean horra sartzeko.

Bilatu

(telefono-aurkibidetik deiak egitea) 4-1-1 menua

1. Aukeratu **Buscar**,  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla edo [OK] tekla sakatuta.
2. Sartu bilatu nahi duzun izena edo hautatu [Lista]  ezkerreko funtzio-tekla, telefono-aurkibideko zerrenda osoa ikusteko.
- ❗ **Oharra** Berehalako bilaketa egin dezakezu, bilatu nahi duzun izenaren lehen letra edo zenbakia idazten baduzu.
3. Sarrera bat editatu, ezabatu edo kopiatu nahi baduzu edo sarrera bati ahotsa gehitu nahi badiuzu, aukeratu  [Ops.] eta menu hau bistaratuko da:
- **Editar:** izena, zenbakia, taldea, izaera eta irudia edita ditzakezu, nabigazio-teklak sakatuta.

- **Nuevo SMS/Escribir mensaje con foto:** nahi duzun izena aurkitu ondoren, SMS/MMS bat bidal dezakezu hautatutako zenbakira.
- **Enviar vía Bluetooth:** telefono-aurkibideko datuak bidal ditzakezu Bluetooth bidez beste gailu bateragarri batzuetara.
- **Copiar:** SIM txarteleetik telefonora edo telefonotik SIM txartelera sarrera bat kopiatzeko aukera ematen du.
- **Núm. principal:** gehien erabiltzen duzun zenbakia (mugikorrekoa, partikularra edo lanekoa) aukera dezakezu. Aukera hau ezarri eta, gero, zenbaki nagusia lehenbizikoa azalduko da bilaketa bat egiten duzunean.
- **Borrar:** sarrera bat ezaba dezakezu.

Berria gehitzea

4-1-2 menua

Telefono-aurkibidean sarrera bat gehitzeko aukera ematen du. Telefonoaren memorian 200 sarrera sar daitezke. SIM txartelaren memoriaren tamaina berriz zerbitzuaren hornitzailearen arabera da.

Telefonoaren memorian gehienez 20 karaktere idatz daitezke izen bakoitzeko; SIM txartelaren kasuan, berriz, karaktere-kopurua txartelaren arabera da izango da.



1. Aukeratu Añadir nueva,  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla edo [OK] tekla sakatuta.
2. Hautatu zein memorian gorde nahi duzun: **SIM** edo **Teléfono**. Telefonoaren memoria aukeratzan baduzu, hautatu zein zenbaki ipini nahi duzun zenbaki nagusi gisa.
 - a. Sakatu  [Aceptar] izen bat sartzeko.
 - b. Sakatu  [Guardar] eta gero zenbaki bat idatz dezakezu.
 - c. Sakatu  [Guardar].
 - d. Sarrerarentzat talde bat ezartzeko, sakatu hauek:  , .
 - e. Sarrerarentzako karaktere bat ezartzeko, sakatu  ,  ,  , .

Erabiltzaileen taldeak

4-1-3 menua

20 kideko 7 talde sor daitezke gehienez.

- **Member list:** hautatutako taldea osatzen duten kideak bistaratzen ditu.
- **Group ringtone:** taldeko kideen deientzat txirrintonu bat hautatzeko aukera ematen du.
- **Icono grupo:** taldeari lotutako ikono bat aukera dezakezu.
- **Añada miemb.:** taldean kide gehiago sar ditzakezu (taldeak 20 kide izan ditzake gehienez).
- **Borrar miembro:** taldearen zerrendatik kide bat ken dezakezu. Nolanahi ere, izenak eta zenbakiak telefono-aurkibidean segituko dute.
- **Renombrar:** taldearen izena aldatzeko aukera ematen du.



Markaketa bizkorra

4-1-4 menua

Izen-zerrenda bateko sarrera bati  -  tekletako bat esleri diezaiokezu. Tekla hori sakatuta, zuzenean telefono horretara deituko duzu.

1. Deiak egiteko/jasotzeko moduan, sakatu  [Contactos] telefono-aurkibidea irekitzeko.
2. Joan **Marc. rápida** aukerara eta gero sakatu  [Selec.].
3. Marcación rápida aukeran zenbaki bat sartu nahi baduzu, hautatu **<Está vacío>** eta, gero, bilatu izena telefono-aurkibidean.
4. Hautatu markaketa bizkorrari esleitutako izena eta aukeratu **Cambiar** edo **Borrar** izena editatzeko.

Telefono-aurkibidea konfiguratzea

4-5-1 menua

1. Sakatu  [Contactos] deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean.
2. Joan **Config. agenda** aukerara eta gero sakatu  [Selec.].

► Memoria konfiguratzea

Joan **Config. memoria** aukerara eta gero sakatu  [Selec.].

- **Variable** hautatzen baduzu, sarrera bat gehitzean, non gordeta dagoen adierazteko esango dizu telefonoak.
- **SIM** edo **Teléfono** hautatzen baduzu, telefonoak SIM txartelean edo telefonoan gordeko du sarrera.

► Zerbaiten arabera bilatzea

Joan **Buscar por** aukerara eta gero sakatu  [Selec.].

- **Variable** aukeratzen baduzu, bilaketa nola egin galdetuko dizu telefonoak.
- **Nombre** edo **Número** hautatzen baduzu, telefonoak izenaren edo zenbakiaren bidez bilatuko du sarrera.

► Aukerak ikustea

Joan **Ver opciones** aukerara eta gero sakatu  [Selec.].



- **Sólo nombre:** telefono-aurkibideko zerrendan izena bakarrik azaltzeko moduan ezartzen du.

- **Con fotos:** izaerari eta argazkiari buruzko informazioarekin ezartzen du telefono-aurkibidearen zerrenda.

- **Nombre y número:** telefono-aurkibidearen zerrenda izena eta zenbakia ikusteko moduan ezartzen du.

Guztiak kopiatzea

4-1-6 menua

Sarrerak kopiatu edo mugi ditzakezu SIM txartelaren memoriatik telefonoaren memoriara, eta alderantziz.

1. Deiak egiteko/jasotzeko moduan, sakatu  [Contactos] telefono-aurkibidea irekitzeko.

2. Joan Copiar todos aukerara eta, gero, sakatu  [Selec.] menuan sartzeko.

• **SIM a teléf.:** SIM txarteletik telefonoaren memoriara kopiatzeko aukera ematen du.

• **Teléf. a SIM:** telefonoaren memoriatik SIM txartelera kopiatzeko aukera ematen du.

3. Azpimenu hauek ikus ditzakezu.

• **Conservar original:** kopiatzean, jatorrizko markaketa-zenbakia mantentzen da.

• **Borrar original:** kopiatzean, jatorrizko markaketa-zenbakia ezabatzen da.

Ezabatu guztiak

4-1-7 menua

SIM txarteletiko eta telefonoko sarrera guztiak ezaba daitezke. Funtzio hau erabili ahal izateko, beharrezkoa da segurtasun-kodea sartzea.

1. Sakatu  [contactos] modu ez-aktiboan eta hautatu Borrar todos. Ondoren, sakatu  [Selec.].

2. Gero, ezabatu nahi duzun memoria aukeratzeko.

3. Sartu segurtasun-kodea eta sakatu  [Volver].

Informazioa

4-1-8 menua

► Zerbitzuen zenbakiak markatzea

Sare-operadoreak eskaintzen dituen zerbitzuen zerrendara sartzeko aukera ematen du (SIM txartelak onartzen baditu).

1. Sakatu  [contactos] deiak egiteko/jasotzeko moduan eta hautatu **Información**.

2. Joan **Nº _marc. serv.** aukerara eta gero sakatu  [Selec.] funtziora sartzeko.

3. Erabili ditzakezun zerbitzuen izenak agertuko dira.

4. Erabili  eta  zerbitzu bat hautatzeko. Sakatu  [Enviar].

► Memoriaren egoera

Funtzio honen bidez telefono-aurkibidean libre dauden eta erabiltzen diren sarrerak ikus ditzakezu.

1. Deiak egiteko/jasotzeko moduan, sakatu  [contactos] telefono-aurkibidea irekitzeko. Aukeratu **Información**  [Selec.] sakatuta.

2. Joan **Estado mem.** aukerara eta gero sakatu  [OK].

► Lista de número propio (SIM txartelaren arabera)

SIM txartelaren telefono-zenbakia gordetzeko aukera ematen du.

Antolatzailea

4-2 menua

Menu honetara sartzean egutegia azaltzen da. Pantailaren goiko aldean, egunari dagozkion hainbat atal daude. Eguna aldatzen duzun bakoitzean, egutegia eguneratuko da dagokion egunaren arabera. Kurtsore lauki bat erabiliko da egun jakin bat bilatzeko. Egutegian beheko marra bat azaltzen bada, egun horrek ohar bat edo egutegiko sarrera bat du. Funtzio honek egutegiko sarrerak eta oharrak gogoraraziko dizkizu. Telefonoak soinua egingo du oharrari funtzio hori esleitzen badiozu.

Eguna, hila eta urtea aldatzeko:

Tekla	Deskribapena	Tekla	Deskribapena
	Urtea		Astea
	Hila		Eguna

Plangintza moduan, sakatu  [Opciones] ezkerreko funtzio-tekla eta egin urrats hauek:



Berria gehitzea

4-2-1 menua

Hautatutako egunerako plan berri bat eta ohar berri bat gehitzeko aukera ematen du. Gehienez 20 ohar gorde ditzakezu. Sartu gaia eta gero aukeratu  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla. Sartu informazio egokia: ordua, noiz errepikatu eta alarma.

Ikustea

4-2-2 menua

Hautatutako eguneko plan eta ohar guztiak ikus daitezke. Erabili  eta  oharren zerrendan mugitzeko. Oharrari alarma esleitzen bazaio, alarmaren ikonoa bistaratuko da.

Oharra xehetasun eta guzti ikusi nahi baduzu, sakatu  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla. Sakatu  [Ops.] ezkerreko funtzio-tekla eta editatu hautatutako oharra.

Guztiak ikustea

4-2-3 menua

Egun guztietako oharrak erakusten ditu. Erabili  eta  oharren zerrendan mugitzeko. Oharra xehetasun eta guzti ikusi nahi baduzu, sakatu  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla.

Azkena ezabatzea

4-2-4 menua

Jakinarazitako egutegiko azken sarrera ezaba dezakezu.

Guztiak ezabatzea

4-5-1 menua

Ohar guztiak kentzeko aukera ematen du.

Memoria

4-3 menua

1. Hautatu oharra,  [Selec.] ezkerreko funtzio-tekla sakatuta.
 2. Hutsa badago, gehitu beste bat  [Añadir] ezkerreko funtzio-tekla sakatuta.
 3. Sartu oharra eta gero sakatu  [Aceptar].
-  **Oharra** Testua sartzeko modua aldatu nahi baduzu, sakatu  tekla.

Sakatu  menu-tekla eta hautatu **Mensajes** nabigazio-teklekin.

Mezu berria

5-1 menua

SMS berria

5-1-1 menua

Zure telefonoak ahots-postontziko jakinarazpen-mezuak eta SMS mezuak (Short Message Service, mezu laburren zerbitzua) jasotzen ditu.

Ahots-postontziaren mezuak eta SMS mezuak sare-zerbitzuak dira. Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

 ikonoak adierazten du ahots-postontzian mezu bat duzula.

 ikonoak adierazten du testu-mezu berri bat jaso duzula.

Mezuen memoria beteta dagoenean, mezu bat bistaritzen da,  ikonoak dar-dar egiten du eta ezin dira mezu berriak jaso. Erabili **Bandeja entrada** menuko **Eliminar** aukera, mezuak ezabatzeko.

Jaso gabe geratu diren SMS mezuak jaso ahal izango dituzu, mezuen memorian tokia egitean.

1. Idatzi mezuak. Mezua idazteko moduei buruzko informazio gehiago dago 26-29 orrietan (testua idaztea).
2. Testu-aukerak ezarri edota letrari estilo jakinen bat aplikatu nahi badiozu, sakatu  [Opcs.].

Aukera hauek dituzu:

► **Enviar:**

1. Idatz ezazu hartzailearen zenbakia.
2. Sakatu  tekla, hartzaile gehiago gehitzeko.
3. Telefono-zenbakiak gehi ditzakezu telefono-aurkibidean.
4. Zenbakia idatzi ostean, sakatu .

► **Guardar:** mezuak irteerako ontzian gordetzen dira.



- ▶ **Fuente:** mezua idazteko erabiliko duzun letra-tipoaren **tamaina** eta **estiloa** hautatzeko aukera ematen dizu.
- ▶ **Color:** testuaren eta hondoaren **kolorea** hautatzeko aukera ematen dizu.
- ▶ **Alineación:** mezua edukia **ezkerrean, erdian** edo **eskuinean** lerrotatzeko aukera ematen dizu.
- ▶ **Agregar diccionario T9:** hitzak gehitzeko aukera ematen dizu. Menu hori bistaratzeko, beharrezkoa da edizio-modua Predictivo izatea.
- ▶ **Idiomas T9:** hautatu testua sartzeko T9 moduaren hizkuntza. T9 idazteko modua desaktibatze, hautatu 'T9 desactivado'.
- ▶ **Salir:** mezu bat idazten ari zarela, Salir sakatzen baduzu, mezua amaitu eta Mensajes menura itzuliko zara. Idazten ari zinen mezua ez da gordeko.

3. Mezuari datuak atxikitze, sakatu eskuineko funtzio-tekla [Insertar], mezua idazten ari zaren bitartean.

- ▶ **Símbolo:** karaktere bereziak gehitzeko aukera ematen du.
- ▶ **Fotos:** Mis imágenes karpeta gordetako irudiak edota irudi lehenetsiak sartzeko aukera ematen du. Telefonoan aurrez konfiguratutako irudiak daude, eta beste toki batzuetatik jasotakoekin ordez daitezke.
- ▶ **Sonido:** soinuak/melodiak sartzeko aukera ematen dizu.
- ▶ **Text message templates:** telefonoan ezarrita dauden txantiloak erabiltzeko aukera ematen dizu.
- ▶ **Contactos:** mezuari telefono-zenbakiak gehi diezazkiokezu.
- ▶ **Sinadura:** sinadura sar dezakezu.

Argazkidun mezuak idaztea 5-1-2 menua

Multimedia-mezu batek testua, irudiak eta/edo soinua izan ditzake. Funtzio hau sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu baino ezin da erabili. Posta elektronikoa edo multimedia-mezu bateragarrien funtzioak eskaintzen dituzten gailuak bakarrik bidal eta jaso ditzakete multimedia-mezuak.



1. Idatzi testu-mezua. Eskuineko funtzio-teklarekin ikurrak, zenbakiak eta aurpegierak sar daitezke, edo testua sartzeko modua hauta dezakezu. Testu-mezua sartzean, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Realizado].
2. Gehitu irudia, soinua edo bideoa. Hurrengo atalera igarotzeko, erabili gora/behera nabigazio-teklak.
3. Diapositiba bat sartzeko, eraman kurtsorea  gainera, sakatu OK tekla edo ezkerreko funtzio-tekla [Selec.]. Diapositiba bat sartzeko, erabili eskuineko funtzio-tekla [Menú].
4. Sakatu [Opcs.] eskuineko funtzio-tekla aukera hauek erabiltzeko:
 - ▶ **Enviar:** aukera ematen dizu multimedia-mezuak hartzaile bati baino gehiagori bidaltzeko, mezuen lehentasuna ezartzeko, eta geroago bidaltzeko.
 - ▶ **Previsualizar:** bidali nahi den multimedia-mezua bistaratzeko du.
 - ▶ **Guardar:** multimedia-mezuak irteerako ontzian edota txantiloiz gisa gordetzeko aukera ematen du.
 - ▶ **Añadir diapositiva:** uneko diapositibaren aurretik edo ondoren diapositiba bat eranstea aukera ematen dizu.
 - ▶ **Mover a diapositiva:** aurreko edo hurrengo diapositibara joateko aukera ematen dizu.
 - ▶ **Eliminar diapositiva:** uneko diapositibak ezabatzeko aukera ematen dizu.
 - ▶ **Definir formato de la diapositiva**
 - **Establecer temporizador:** diapositibetarako, testurako, irudietarako eta soinuetaarako tenporizadorea ezartzeko aukera ematen dizu.
 - **Cambiar texto y fotografía:** argazki baten posizioa eta mezua testua aldatzeko aukera ematen dizu.
 - ▶ **Eliminar archivos de medios:** diapositibako irudiak, argazkiak, soinua edo bideoak ezabatzeko aukera ematen dizu.



- **Agregar diccionario T9:** hitzak gehitzeko aukera ematen dizu. Menu hori bistaratuko da edizio-modua Predictivo bada.
- **Idiomas T9:** T9 testu prediktiboaren hizkuntza alda dezakezu.
- **Salir:** Mensajes menura itzultzeko aukera ematen dizu.

5. Elementuak sartzeko, sakatu Insertar, eta hautatu Símbolo, Foto, Hacer foto, Fotos, Sonido, Nota de voz edo Plantillas de texto.

Sarrerako postontzia

5-2 menua

Jasotzen dituzun mezuak sarrerako postontzian gordeko dira. Alerta bat jasoko duzu mezu berri bat jasotzen duzun bakoitzean. Sarrerako ontzian, mezuak ikono hauekin identifikatzen dira:

Ikonoa	Deskribapena
	SIM mezuak irakurrita
	Irakurri gabeko SIM mezuak
	Mezua irakurrita
	Irakurri gabeko mezua
	Entregatu izanaren txostena irakurrita
	Entregatu izanaren txostena irakurri gabe

❗ **Oharra** Telefonoak bereizi egiten ditu SIM mezuak gainerakoetatik. SIM mezuak dira SIM txartelaren memorian gordetzen direnak.

Jasotako mezu batean ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.] sakatzen baduzu, aukera hauek izango dituzu:

- **Responder:** jasotako mezuari erantzuteko balio du.

Jasotzen dituzun mezuak sarrerako postontzian gordeko dira. Sarrerako ontzian, mezuak ikono hauekin identifikatzen dira.

‘No hay espacio para el mensaje’ mezua azaltzen bada, tokia egin beharko duzu, mezuak, multimedia fitxategiak eta aplikazioak ezabatuta.

- **Reenviar:** jasotako mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- **Devolver llamada:** mezua bidali duen pertsonaren telefonora deitzeko balio du.
- **Extraer:** mezutik irudiak, soinuak, testuz osatutako web orriak edo helbide elektronikoak ateratzen ditu. Karpetan, telefono-aurkibidean edo markagailuetan gordeko dira.
- **Eliminar:** sarrerako postontzian hautatutako mezuak ezabatzen ditu.
- **Ver información:** jasotako mezuei buruzko informazioa ikusteko aukera ematen du.

Ikonoa	Deskribapena
	Multimedia-mezua irakurrita
	Irakurri gabeko multimedia-mezuak
	Irakurritako gisa jakinarazitako multimedia-mezuak
	Irakurri gabeko gisa jakinarazitako multimedia-mezuak

- **Responder:** igorleari erantzuteko aukera ematen dizu.
- **Reenviar:** mezua beste pertsona bati bidaltzeko balio du.
- **Devolver llamada:** bidaltzaileari deia itzultzeko aukera ematen dizu.
- **Eliminar:** mezua ezabatzeko balio du.
- **Extraer:** irudiak eta soinuak ateratzen ditu. Karpetan edo telefono-aurkibidean gordeko dira.
- **Ver información:** jasotako mezuei, bidaltzailearen helbideari, gaiari (multimedia-mezuetan), mezuaren data eta orduari, mezu-motari eta mezuaren tamainari buruzko informazioa ikusteko aukera ematen dizu.



Zirriborroa

5-3 menua

Menu honetan zirriborro gisa gordetako mezuen zerrenda ikus daiteke. Ikus zerrenda gora/behera nabigazio-teklak erabilita. Ondoko aukerak ditu:

- ▶ **Ver:** aukeratutako mezua bistaritzen du du.
- ▶ **Editar:** aukeratutako mezua aldatzen du.
- ▶ **Borrar:** aukeratutako mezua ezabatzen du.
- ▶ **Ver Información:** mezuaaren informazioa bistaritzen du.
- ▶ **Borrar todos:** karpetako mezu guztiak ezabatzen ditu.

Irteerako postontzia

5-4 menua

Bidalitako mezuen zerrenda eta horien edukia ikus daiteke, baita transmisioa egokia izan den ere.

Aukera hauek ditu:

Ikonoa	Deskribapena
	SIM mezua bidalita
	Mezua bidalita

- ▶ **Reenviar:** irekita dagoen mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- ▶ **Eliminar:** irteerako postontzian hautatutako mezuak ezabatzen ditu.

Ikonoa	Deskribapena
	Bidalita

- **Reenviar:** irekita dagoen mezua beste hartzaile batzuei bidaltzeko balio du.
- **Ver:** jasotako mezuei, bidaltzailearen helbideari, gaiari (multimedia-mezuetan), mezuaaren data eta orduari, mezu-motari eta mezuaaren tamainari buruzko informazioa bistaritzen du.



Ahots-postontzia entzutea 5-5 menua

Menu honekin bizkor sar zaitezke zure ahots-postontzira (sarean baldin badago). Funtzio hau erabili baino lehen, sare-operadoreak ahots-zerbitzariarentzat emandako zenbakia sartu behar duzu. Ahots-mezu bat iristen denean, dagokion ikurra pantailan agertuko da. Telefonoa dagokion moduan konfiguratzeko, egiazta itzazu zerbitzuaren xehetasunak zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Informazio-mezua 5-6 menua

Informazio-zerbitzuaren mezuak telefono mugikorren erabiltzaileei sareak bidaltzen dizkien testu-mezuak dira. Hainbat gairi buruzko informazio orokorra eskaintzen dute, hala nola eguraldiaren iragarpena, zirkulazioa, taxiak, botikak eta burtsa. Informazio-mota bakoitzari zenbaki bat dagokio eta sare-operadoreak emango dizu zenbakia. Informazio-zerbitzuaren mezu bat jasotzen duzunean, mezu bat jaso duzula adieraziko dizun mezu bat agertuko da; bestela, zuzenean azalduko da informazio-zerbitzuaren mezua. Deiak jasotzeko/egiteko moduan, aukera hauek daude informazio-zerbitzuen mezuak bistartzeko.

Irakurtzea 5-6-1 menua

Informazio-zerbitzuko mezu bat jaso, eta, hura ikusteko, **Leer** sakatzen baduzu, mezua pantailan azalduko da.

Gaiak 5-6-2 menua

Gai berriak sartzeko, sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.] eta, gero, aukeratu **Añadir nueva**. Lehendik gaiak baldin badaude, desaktibatu, editatu edo ezaba ditzakezu; horretarako, erabili ezkerreko funtzio-tekla [Opcs.].

Txantiloia 5-7 menua

Aurrez definitutako mezuak daude zerrendan. Txantiloimezuak ikusi eta edita daitezke edo mezu berriak sor daitezke. Bi txantiloimota daude: testua eta multimedia.



Text message templates

5-7-1 menua

- **Por favor llámame**
- **Llego tarde. Llegaré a las**
- **¿Dónde estás ahora?**
- **Estoy de camino**
- **Muy urgente. llámame**
- **Te quiero.**

Aukera hauek ditu:

- ▶ **Ver:** txantiloia ikus daiteke.
- ▶ **Editar:** hautatutako txantiloia edita daiteke.
- ▶ **Escribir**
 - **Nuevo SMS:** hautatutako txantiloia-mezua SMS bidez bidaltzeko balio du.
 - **Escribir mensaje con foto:** hautatutako txantiloia-mezua MMS bidez bidaltzeko balio du.

- ▶ **Añadir nueva:** erabili aukera hau txantiloia berri bat sortzeko.
- ▶ **Borrar:** multimedia-txantiloia ezabatzeko balio du.
- ▶ **Borrar todas:** mezu guztiak ezaba ditzakezu.

Picture message templates

5-7-2 menua

- ▶ **Ver:** multimedia-txantiloia ikusteko balio du.
- ▶ **Editar:** Multimedia-txantiloia editatzeko balio du.
- ▶ **Añadir nuevo:** Multimedia-txantiloia editatzeko balio du.
- ▶ **Escribir:** Multimedia-mezuak multimedia txantiloiekin idazteko balio du.
- ▶ **Borrar:** Multimedia-txantiloia ezabatzeko balio du.
- ▶ **Borrar todas:** multimedia-mezu guztiak ezaba ditzakezu.

Sinadura

5-7-3 menua

Aukera honen bidez bisita-txartela sor daiteke (izena, telefono-zenbakia, faxa eta helbide elektronikoa).



Konfigurazioa

5-8 menua

Testu-mezuak

5-8-1 menua

► Tipos de mensajes:

Texto, Voz, Fax, Búsq. nac., X.400, E-mail, ERMES

Berez, Texto motako mezuak daude ezarrita, baina beste formatuak aukera daitezke. Funtzio horren erabilgarritasunari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

- **Período de validez:** sareko zerbitzu honen bidez, testu-mezuak mezuen zentroan gordeko diren aldia ezarri ahalko duzu.
- **Acuse de recibo:** aukera honetan **Si** sakatzen baduzu, mezua bidali den egiaztatu ahalko duzu.
- **Responder mediante el mismo centro de servicios:** mezu bat bidaltzen denean, hartzaileek aukera dute erantzuteko eta erantzunaren kostua telefono-fakturan zorduntzeko.

- **Centro SMS:** testu-mezua bidali nahi baduzu, menu honen bitartez SMS mezuen zentroaren helbidea jaso dezakezu.

Irudia duten mezuak

5-8-2 menua

- **Prioridad:** hautatutako mezuaren lehentasuna ezar dezakezu.
- **Período de validez:** sareko zerbitzu honen bidez, testu-mezuak mezuen zentroan gordeko diren aldia ezarri ahalko duzu.
- **Acuse de recibo:** menu-aukera honetan **Si** sakatzen baduzu, mezua bidali den egiaztatu ahalko duzu.
- **Descarga automática: Activ.** hautatzen baduzu, automatikoki multimedia-mezuak jasoko dituzu. **Desac.** hautatzen baduzu, sarrerako ontzian jakinarazpen-mezu bat baino ez duzu jasoko, eta gero jakinarazpen hori egiaztatu ahalko duzu. 'Sólo para red doméstica' hautatzen baduzu, etxeko sarearen arabera jasoko dituzu multimedia-mezuak.



- **Config. red:** menu honen bidez, multimedia-mezen zerbitzariarentzako URL helbidea ezar daiteke.

► **Tipos de mensajes permitidos**

Personal: mezu pertsonala.

Anuncio: mezu komertzialak.

Información: beharrezko informazioa.

Ahots-postontziaren zentroa . 5-8-3 menua

Ahots-mezuak jaso ditzakezu, zerbitzu-hornitzaileak funtzio hori onartzen badu. Ahots-mezu bat iristen denean, dagokion ikurra pantailan agertuko da. Telefonoa dagokion moduan konfiguratzeko, egiazta itzazu zerbitzuaren xehetasunak zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- **Inicio:** ahots-postontziko mezuak entzuteko, hautatu aukera hau.
- **Itinerancia:** atzerrian bazaude ere, ahots-postontziko mezuak entzun ditzakezu, zerbitzu hau onartzen bada.

Informazio-mezua

5-8-4 menua

► **Recibir**

Si: menu hau hautatzen baduzu, telefonoak informazio-zerbitzuko mezuak jasoko ditu.

No: menu hau hautatzen baduzu, telefonoak ez ditu jasoko informazio-zerbitzuko mezuak.

► **Alerta**

Si: informazio-zerbitzuko mezuak jasotzean, telefonoak soinu txiki bat egingo du.

No: telefonoak ez du soinurik egingo informazio-zerbitzuko mezuak jasotzen dituenean.

► **Idiomas**

[Activado/ Desactivado] sakatuta, nahi duzun hizkuntza hauta dezakezu. Jarraian, informazio-zerbitzuko mezua hautatutako hizkuntzan azalduko da.



Push mezuak

5-8-5 menua

Mezu-mota hori jasotzeko edo ez jasotzeko aukera ematen du.

Argazkiak egin daitezke telefonoak duen kamerarekin.

Argazkia egitea

6-1 menua

• Nola egin argazki bat tapa irekita dagoela

1. Hautatu 'Hacer foto' eta gero sakatu Zuzenean menu horretara iritsi nahi baduzu, sakatu luze .
 2. Fokatu objektua irudia atzitu arte, eta, gero, sakatu .
 3. Irudia gorde nahi baduzu, sakatu edo .
- ! Oharra** Irudiaren tamaina, distira, kolorea eta zooma kontrola ditzakezu, nabigazio-tekla sakatuta.
- **Zoom** []: zoomaren balioa x1 eta x5 bitartean ezartzea ahalbidetzen du, bereizmenaren arabera.
 - **Color** []: 3 aukera daude: benetako kolorea, sepia eta zuri-beltza.
 - **Brillo** []: distira doitzeko, erabili eskuin/ezker nabigazio-teklak. 5 argiztapen-maila daude: -2, -1, 0, +1, +2.

► **Captura automática** []: atzerapen-denbora hautatzeko (Desak., 3 s eta 5 s). Telefonoak argazkia egingo du, adierazitako denbora igarotakoan.

► **Estado memoria** []: argazki gehiago egin ahal izateko, egiaztatu memorian libre dagoen lekua.

► **Flash** []: flasha behar baduzu argazkiak ateratzeko, flasha doi dezakezu.

► **Resolución** []: irudiaren tamaina hauta dezakezu: handia (640x480), ertaina (320x240), txikia (128x160) eta telefono-aurkibideko argazkiak (48x48).

► **Calidad imagen** []: irudiaren kalitatea hauta dezakezu: oinarritzkoa, arrunta eta ona.

• Nola egin argazki bat tapa irekita dagoela

Zure buruaren argazkia egin nahi baduzu, bigarren mailako LCD pantailan ikus dezakezu zure burua.

1. Sakatu luze .
2. Bolumenaren alboko botoiarekin [] hautatu ostean, hautatu 'Hacer foto', eta gero sakatu [] .

3. Fokatu objektua irudia atzitu arte, eta, gero, sakatu []. Horrela, argazkia automatikoki gordetzen da.

- **Hacer foto:** 'Hacer foto' modua aktibatzen du.
- **Presentación automática:** argazkiak Album moduan ikusteko aukera ematen du, diapositiben aurkezpen automatikoa balitz bezala.
- **Luz:** flasharen argia aktibatzen du.
- **Atrás:** aurreko menura itzultzen da.

Hainbat modutara

6-2 menua

Argazki bat egin dezakezu, zenbait hondorekin. Gainera, marko bat hauta dezakezu gora, behera, ezkerre () eta () eskuinera teklak sakatuta.

- ! **Oharra** Une honetan, ezin dituzu aldatu bereizmen-doitzeak.

Jarraituak

6-3 menua

Elkarren segidako 9 argazki egin ditzakezu batera. Argazkia egin ostean, ezker- () eta eskuin-teklak () sakatuta ikus dezakezu tekla sakatuta ere gorde dezakezu.

- ! **Oharra** 320x240 bereizmena ezartzen baduzu, ezingo dituzu atera 6 argazki baino gehiago. 128x160 bereizmena hautatzen baduzu, 9 argazki egin ahalko dituzu.

Nire albuma

6-4 menua

Argazki bat ikusi eta bidaltzeko aukera duzu. Gainera, leihoa ezar dezakezu argazkiaren hondo gisa.

Argazki guztiak

6-4-1 menua

Argazki guztiak ikus ditzakezu.

Argazki arruntak .

6-4-2 menua

Argazki guztiak ikus ditzakezu, markoa dutenak eta telefono-aurkibideko argazkiak izan ezik.



Argazkiak moduaren arabera 6-4-3 menua

Markoa duten argazki guztiak ikus ditzakezu.

- **Aukerak**
- ▶ **Vista múltiple:** pantailan gehienez 9 miniatura bistara daitezke.
- ▶ **Escribir mensaje con foto:** MMS multimedia-mezen zerbitzuaren bidez argazkiak bidaltzeko aukera ematen du.
- ▶ **Como tapiz:** argazki bat horma-irudi gisa ezartzeko balio du.
- ▶ **Presentación automática:** argazkiak diapositiben aurkezpen automatiko gisa ikusteko balio du.
- ▶ **Borrar:** argazki bat ezabatzeko balio du.
- ▶ **Edit. título:** argazkiaren izenburua editatzeko aukera ematen du.
- ▶ **Ver información:** izenburuari, tamainari, datari eta behar izan duen denborari buruzko informazioa ikusteko balio du.

- ▶ **Protección:** irudia blokea dezakezu, akatsak ezabatzeko.

Telefono-aurkibideko argazkiak

6-4-4 menua

Telefono-aurkibideko argazki guztiak ikus ditzakezu.

- ▶ **Como tapiz:** irudi bat horma-irudi gisa ezartzeko balio du.
- ▶ **Presentación automática:** argazkiak diapositiben aurkezpen automatiko gisa ikusteko balio du.
- ▶ **Borrar:** irudi bat ezabatzeko balio du.
- ▶ **Edit. título:** irudiaren izenburua editatzeko aukera ematen du.
- ▶ **Ver información:** izenburuari, tamainari, datari eta behar izan duen denborari buruzko informazioa ikusteko balio du.
- ▶ **Protección:** menu honetan, irudia blokea dezakezu, nahi gabe ez ezabatzeko.



Konfigurazioa

6-5 menua

Memoriaren egoera

6-5-1 menua

Gutzizko memoriaren, memoria erabiliaren eta memoria librearen edukiera egiazta dezakezu.

Albuma ezabatzea

6-5-2 menua

Gordetako argazki guztiak ezaba ditzakezu.

Automatikoki gordetzea

6-5-3 menua

Kamerarekin egindako argazkiak automatikoki gordetzen ditu.



Menu hauek ezar ditzakezu, zure beharren eta lehentasunen arabera.

1. Sakatu  [Menú] telefona deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoenean.
2. Sakatu  **Ajustes** aukeran zuzenean sartzeko.

Alarma

7-1 menua

Gehienez 5 alarma aktiba ditzakezu, telefonoak ordu jakin batean jo dezan.

1. Hautatu **Activ.** eta idatzi alarmak zein ordutan jotzea nahi duzun.
2. Aukeratu zein maiztasunekin errepikatzea nahi duzun: **Una vez, Lun~Vie, Lun~ Sáb, Cada día.**
3. Hautatu nahi duzun alarma-tonua eta sakatu  [Aceptar].
4. Editatu alarmaren izena eta sakatu  [Aceptar].

Eguna eta ordua

7-2 menua

Egunarekin eta orduarekin lotutako funtzioak ezar ditzakezu.

Eguna

7-2-1 menua

Telefonoan eguna ezarri eta aldatzeko aukera duzu.

Egunaren formatua

7-2-2 menua

Egunaren formatua ezartzeko aukera duzu:

EE/HH/UUUU, HH/EE/UUUU eta **UUUU/HH/EE.** (E: eguna; H: hila; U: urtea)

Ordua

7-2-3 menua

Telefonoko ordua alda dezakezu.

Orduaren formatua

7-2-4 menua

Orduaren formaturako bi aukera daude: 12 orduko formatua edo 24 ordukoa.



Telefonoa konfiguratzea 7-3 menua

Telefonoarekin lotutako funtzioak ezar ditzakezu.

Doikuntzak bistaratzea 7-3-1 menua

- **Papel tapiz:** pantailaren hondoko irudiak aukera ditzakezu.

- LCD principal

- LCD secundaria

Lehenespenez

 edo  teklak sakatuz gero, irudi bat edo animazio bat horma-paper gisa jartzeko hauta dezakezu.

Nire karpeta

Irudi edo animazio bat horma-paper gisa hautatzeko aukera ematen du.

- **Esquema telef.:** lau kolore-patroi hauta ditzakezu: garbia, argia, papera edo metalikoa.

- **Texto pant.:** **Activar** hautatuta, menuan deiak jasotzeko/egiteko egoeran azaltzen den testua pertsonalizatzeko aukera duzu.

- **Luz de fondo:** barruko pantaila zenbat denboran egongo den argituta ezar daiteke.

- **Ventana de información:** hautatutako menua ireki baino lehen zein egoeratan dagoen bistartzeko aukera ematen du. Egoera pantailaren beheko aldean bistaratzen da.

- **Nombre de red:** ON hautatzen baduzu, sarearen izena (zerbitzu-hornitzailearen izena) telefonoaren barruko pantailan bistaratzen da.

Hizkuntza 7-3-2 menua

Hizkuntza hautatzeko aukera ematen du. Aldaketa horrek Entrada de idioma moduari ere eragiten dio.

Deiak konfiguratzea 7-4 menua

Deien aukerak ezar ditzakezu **Ajustes** aukeran  [Selec.] sakatuta.



Deiak desbideratzea

7-4-1 menua

Deiak desbideratzeko zerbitzuari esker, sartzen diren ahots-deiak, faxak eta datuak beste zenbaki batera desbidera daitezke. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- ▶ **Desvío llam.:** ahots-deiak automatikoki desbideratzen ditu.
- ▶ **Comunicando:** telefonoa erabiltzen ari zaren bitartean jasotzen dituzun ahots-deiak desbideratzen ditu.
- ▶ **Si no hay respuesta:** erantzuten ez diren ahots-deiak desbideratzen ditu.
- ▶ **Localizable:** telefonoa itzalita badago edo estaldurarik ez badu, jasotako ahots-deiak desbideratzen ditu.
- ▶ **Llamad. datos:** datu-deiak, baldintzarik gabe, PCrako konexioa duen zenbaki batera bidaltzen ditu.
- ▶ **Llamadas fax:** fax-deiak, baldintzarik gabe, faxerako konexioa duen zenbaki batera bidaltzen ditu.
- ▶ **Cancelar todo:** desbideratze guztiak ezeztatzen ditu.

Bigarren mailako menuak

Deiak desbideratzeko menuan, azpimenu hauek daude:

• Habilitar

Dagokion zerbitzua aktibatzen du.

Al centro de buzón de voz

Deia mezuen zentrora bidaltzen du. Funtzio hau ez dago erabilgarri Datu-dei guztiak eta Fax-dei guztiak menuetan.

A otro número

Deia zein zenbakitara desbideratu aukera daiteke.

Gogoko zenbakira

Desbideratutako azken bost zenbakiak egiazta daitezke.

• Cancel

Zerbitzua desaktibatzen du.

• Ver estado

Zerbitzuaren egoera ikusteko aukera ematen du



Erantzuteko modua

7-4-2 menua

- **Tapa abiarta:** menu hau hautatzen baduzu, sarrerako dei bat jaso dezakezu telefonoaren tapa irekiz gero.
- **Pulse culaq. Tecla:** dei bat jaso dezakezu, edozein tekla sakatuta,  [fin] izan ezik.
- **Sólo enviar:** deiak  [Enviar] tekla sakatuta bakarrik jaso ditzakezu.

Nire zenbakia bidaltzea

(sarearen eta harpidetza-motaren arabera)

7-4-3 menua

- **Activ.:** zure telefono-zenbakia hartzailearen telefonoan bistaratuko da.
- **Desac.:** zure telefono-zenbakia ez da hartzailearen telefonoan bistaratuko.
- **Definir por red:** aukera hau hautatzen baduzu, telefono-zenbakia bidal dezakezu, bi lineako zerbitzuaren arabera (1 linea edo 2 linea).

Deia zain

(sarearen eta harpidetza-motaren arabera)

7-4-4 menua

- **Habilitar:** Activar hautatzen baduzu, zain dagoen (sarrerako) deia onar dezakezu.
- **Cancel.:** Cancelar hautatzen baduzu, zain dagoen (sarrerako) deia atzera bota dezakezu.
- **Ver estado:** zain dagoen deiaren egoera bistaratzen du.

Minutuen abisua

7-4-5 menua

Activ. hautatzen baduzu, deiaren iraupena egiazta dezakezu; izan ere, soinutxo bat entzungo duzu minutuko, hitz egiten ari zaren bitartean.

Automatikoki berriz deitzea

7-4-6 menua

- **Activ.:** funtzio hau aktibatuta badago eta deiaren konexioarekin arazoren bat badago, telefonoa berriro markatzen saiatuko da, automatikoki.
- **Desac.:** deiaren konexioarekin arazoren bat badago, telefonoa ez da saiatuko berriro markatzen.



Segurtasuna konfiguratzeko 7-5 menua

PIN kodea eskatzeko 7-5-1 menua

Menu honetan, piztean SIM txartelaren PIN kodea eskatzeko ezar dezakezu telefonoa.

1. Hautatu Petición PIN Segurtasun-doikuntzak menuan eta ondoren, sakatu  [Selec.].
2. Hautatu **Activ./Desac.**.
3. Aktibatuta hautatu baduzu eta doikuntza hori aldatu nahi baduzu, PIN kodea sartu beharko duzu telefonoa piztutakoan.
4. Hiru aldiz segidan okerreko PINa sartzen baduzu, telefonoa blokeatu egingo da. PIN kodea blokeatzen bada, PUK kodea idatzi beharko duzu.
5. PUK kodea 10 aldiz sar dezakezu. Hamar aldiz segidan gaizki sartzen baduzu, ezingo duzu telefonoa desblokeatu. Kasu horretan, zerbitzu-hornitzailearekin jarri beharko duzu harremanetan.

Telefonoa blokeatzeko 7-5-2 menua

Segurtasun-kodea erabil dezakezu, telefonoa baimenik gabe inork erabil ez dezan. Telefonoa blokeatzeko aukera **"Activ."** gisa hautatuta badago, telefonoa pizten duzun bakoitzean, segurtasun-kodea eskatuko dizu. Telefonoa blokeatzeko aukera **Automático** gisa badago, SIM txartela aldatzen baduzu bakarrik eskatuko dizu segurtasun-kodea.

Deiak murriztea 7-5-3 menua

Deiak murrizteko zerbitzuak ez du uzten maila jakin bateko deiak egiten edo hartzen. Funtzio hau erabiltzeko, deiak murrizteko pasahitza erabili behar duzu. Bigarren mailako menu hauek dituzu.

- **Todas realiz.:** Zerbitzu honek irteerako dei guztiak murrizten ditu.
- **Internacional:** Zerbitzu honek nazioarteko irteerako dei guztiak murrizten ditu.



- ▶ **Internacional si en itinerancia:** zerbitzu honek nazioarteko irteerako dei guztiak murrizten ditu, desplazamendu-egoeran (roaming) zaudenean norberaren sarera egindako deiak izan ezik.
- ▶ **Todas entran.:** zerbitzu honek sarrerako dei guztiak murrizten ditu.
- ▶ **Entrante si en itinerancia:** desplazamendu-egoeran zaudenean, sarrerako dei guztiak murrizten ditu.
- ▶ **Cancelar todo:** deiak murrizteko zerbitzu guztiak bertan behera uzten ditu.
- ▶ **Cambiar contraseña:** deiak murrizteko zerbitzuaren pasahitza aldatzeko aukera ematen du.

Bigarren mailako menuak:

- **Habilitar**

Aukera honen bidez, deiak murrizteko zerbitzua aktibatzeko eskatzen diozu sareari.

- **Cancel.**

Deiak murrizteko zerbitzua desaktibatzen da aukera honen bidez.

- **Ver estado**

Deiak murrizteko zerbitzua aktibatuta dagoen egiazta daiteke aukera honen bidez.

Markaketa finkoa (SIM txartelaren arabera)

7-5-4 menua

Telefono-zenbaki jakin batzuetarako deiak murriz ditzakezu. Zenbaki horiek PIN2 kodearen bidez babesten dira.

- ▶ **Habilitar:** telefono-zenbaki jakin batzuetarako deiak murriz ditzakezu.
- ▶ **Cancel.:** markaketa finkoko funtzioa desaktibatzen du.
- ▶ **Lista núm.:** markaketa finkoko zenbaki gisa gordetako zenbakien zerrenda ikus dezakezu.



Kodeak aldatzea

7-5-5 menua

PINa Identifikazio Pertsonaleko Zenbakiaren laburdura da; jendeak baimenik gabe telefonoa ez erabiltzeko erabiltzen da.

Sarbide-kodeak alda ditzakezu: **Código PIN2, Código segur.**

1. Segurtasun-kodea, PIN kodea edo PIN2 kodea aldatu nahi baduzu, sartu jatorrizko kodea eta sakatu  [Aceptar].
2. Segurtasun-kode, PIN kode edo PIN2 kode berria idatzi eta egiaztatu.

Sarea konfiguratzea

7-6 menua

Automatikoki edo eskuz erregistratuko den sarea hauta dezakezu. Normalean, sarearen hautaketa **Automático** gisa ezarrita dago.

Automatikoki

7-6-1 menua

Modu automatikoa aukeratzen baduzu, telefonoak sare bat automatikoki bilatu eta hautatuko du. Automático aukera hautatu ondoren, telefonoa "Automático" gisa konfiguratuta geratuko da, itzali eta piztu arren.

Eskuz

7-6-2 menua

Telefonoak erabilgarri dituen sareen zerrenda bilatuko eta erakutsiko du. Ondoren, erabili nahi duzun sarea hauta dezakezu, sare horrek tokiko sare-operadorearekin desplazamendu-hitzarmena badu. Hautatutako sarera sartzetik ez baduzu, telefonoak beste bat hautatzeko aukera ematen du.

Gogokoak

7-6-3 menua

Gogoko sareen zerrenda ezar dezakezu, telefonoa sare horretan erregistratzen saia dadin, beste edozeinetan saiatu baino lehen. Zerrenda hori telefonoan aurrez definitutako sare ezagunen zerrendan dago.



Doikuntzak leheneratzea 7-7 menua

Fabrikan aurrez definitutako balio guztiak berrezar ditzakezu. Funtzio hau aktibatu ahal izateko, segurtasun-kodea sartu behar duzu.

GPRS konfiguratzea 7-8 menua

GPRS zerbitzua egoeren arabera defini dezakezu.

Hainbat WAP zerbitzutara (Wireless Application Protocol, Haririk gabeko aplikazioen protokoloa) sar zaitezke; esate baterako, banku-zerbitzuak, albisteak, eguraldiari buruzko informazioa eta hegaldiei buruzko informazioa. Zerbitzu horiek telefono mugikorretarako bereziki daude diseinatuta eta WAP zerbitzu-hornitzaileek edukitzen dituzte.

WAP zerbitzu horien erabilgarritasunari, prezioei eta tarifei buruz galdetu zure sare-operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari. Zerbitzu-hornitzaileek ere eskaintzen duten zerbitzua erabiltzeko moduari buruzko jarraibideak emango dizkizute.

Konektatutakoan, hasierako orria bistaratzen da. Edukia zerbitzu-hornitzailearen arabera da. Edozein web gunetara joan zaitezke. Gunearen URL helbidea idatzi besterik ez duzu egin behar. Edozein unetan esploratzailetik irteteko, sakatu  tekla. Telefonoa deiak jasotzeko/egiteko egoeran geratuko da.

WAP bilatzailearekin nabigatzea

Interneten nabiga dezakezu, telefonoko teklak erabilia edo WAP bilatzailearen menua erabilia.

Telefonoko teklak erabiltzea

Interneten nabigatzen ari zarela, telefonoko teklen funtzioa ez da telefonoaren moduan normalean dutena.

Tekla	Deskribapena
	Lerroetan gora eta behera mugituz edukiaren gunera jotzeko.
	Aurreko orrira itzultzen da.
	Aukerak hautatzen eta ekintzak berresten ditu.

WAP bilatzailearen menua erabiltzea

Sare mugikorrean nabigatzen ari zarela, menuko hainbat aukera dituzu.

 **Oharra** WAP arakatzzailearen menu guztiak ez dira berdinak, arakatzzailearen bertsioaren arabera.



Internet

8-1 menua

Hastea

8-1-1 menua

Hasierako orri batera konektatzeko aukera ematen du. Hasierako orria aktibatutako profilean definitutako gunea izango da. Aktibatutako profilean definitu ez baduzu, zerbitzu-hornitzaileak definituko du.

Gogokoak

8-1-2 menua

Menu horren bidez, gogoko web orrien URLa gorde daiteke, edozein unetan horietan zuzenean sartzeko. Telefonoak aurrez instalatutako markagailu batzuk ditu. Aurrez zehaztutako markagailu horiek ezin dira ezabatu.

Markagailua sortzea

1. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla  [Opciones].
2. Hautatu Añadir nuevo eta sakatu OK tekla.
3. Idatzi URLa eta nahi duzun izenburua eta sakatu OK tekla.

* **Iradokizuna:** Erabili  eta  tekla sinboloak sartzeko. "." sartzeko, sakatu .

Nahi duzun markagailua hautatu ondoren, aukera hauek dituzu.

- **Conectar:** hautatutako markagailura konektatzen zara.
- **Añadir nueva:** markagailu berria sor dezakezu.
- **Editar:** hautatutako markagailuaren URLa edo izenburua edita ditzakezu.
- **Borrar:** hautatutako markagailua ezabatzen du.

Borrar todas: markagailu guztiak ezabatzen ditu.

Profilak

8-1-3 menua

Profila Internetera konektatzeko erabilitako sare-informazioa da. Profil bakoitzak azpimenu hauek ditu:

- **Habilitar:** aukeratutako profila aktibatzen du.
- **Configuración:** hautatutako profilaren WAP doikuntzak edita eta alda ditzakezu.



- **Inicio:** doikuntza horren bidez, orri nagusi gisa erabili nahi duzun gunearen URL helbidea idatz dezakezu. Ez da nahitaez "http://" zatia idatzi behar URL helbidearen hasieran; izan ere, WAP arakatzailerak automatikoki eransten dio.

- **Portadora:** garraiatzailearen datu-zerbitzu ezar dezakezu.

1 Datos

2 GPRS

- **Ajustes de datos:** Datos garraiatzaile edo zerbitzu gisa hautatzen baduzu bakarrik bistaritzen da.

Dirección IP: idatzi nahi duzun WAParen lotura-atearen IP helbidea.

Marcar núm.: sartu WAParen lotura-estekara sartzeko markatu nahi duzun telefono-zenbakia.

Id. usuario: sarera telefono bidez sartzeko zerbitzuan erabiltzaileak duen identitatea (eta EZ WAParen lotura-estekan).

Contraseña: sarera telefono bidez sartzeko zerbitzariak eskatutako pasahitza (eta ez WAParen lotura-estekarena), identifikatzeko.

Tipo llamada: hautatu datu-dei mota bat: Analogue (analogikoa) edo Digital (RDSI).

Vel. llamada: datu-konexioaren abiadura: 9.600 / 14.400.

Lím. tiempo: zain egoteko aldi finko bat ezarri behar duzu. Ezarri ondoren, nabigatzeko WAP zerbitzua ez da erabilgarri egongo daturik sartzen edo transferitzen ez bada.

- **Ajustes de GPRS:** zerbitzuaren doikuntzak GPRS zerbitzu garraiatzaile gisa hautatuta badago bakarrik erabili ahal izango dituzu.

Dirección IP: idatzi nahi duzun WAParen lotura-atearen IP helbidea.

APN: sartu GPRSren APNa.

Id. usuario: erabiltzailearen identifikazioa APN zerbitzarian.

Contraseña: APN zerbitzariak eskatutako pasahitza.



- **Tipo de conexión:** konexio-moten aukerak aldi baterakoak edo jarraituak dira, eta erabilitako lotura-atearen arabera dira.

Jarraituak

Entrega-mekanismo egiaztatua da, baina sarean zirkulazio gehiago sortzen du.

Aldi baterakoa

Egiaztatu gabeko zerbitzua (konexiorik gabe).

HTTP

Bezeroak zuzenean HTTP zerbitzarira konektatzen ditu.

- Ajustes proxy

Dirección IP: sartu nahi duzun proxy zerbitzariaren IP helbidea.

Puerto: idatzi proxy ataka.

- Ajustes DNS

Servidor primario: idatzi erabili nahi duzun DNS zerbitzari nagusiaren IP helbidea.

Servidor secundario: idatzi erabili nahi duzun bigarren mailako DNS zerbitzariaren IP helbidea.

- **Ajustes de seguridad:** erabiltzen den atearen atakaren arabera, aukera hauek daude: **Activ.** edo **Desac.**

- **Mostrar imág:** WAP txarteletako irudiak bistaratu ala ez aukera dezakezu.

- **Renombrar:** profilaren izena alda dezakezu.
- **Borrar:** zerrendatik aukeratuko profila ezabatzen du.
- **Añadir nueva:** profil berria eransteko aukera ematen du.

URLra joatea

8-1-4 menua

Zuzenean gunera konekta zaitezke URL helbide zehatza sartuta; ondoren, sakatu OK tekla.

Cache-a konfiguratzea

8-1-5 menua

Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira.

- **Borrar caché:** cache memorian gordetako testu guztiak ezabatu.



- **Comprobar caché:** konexio-saiakera cache memoriaren bidez egingo den edo ez ezartzeko aukera ematen du.

❗ **Oharra** Cache memoria tarteko memoria da, eta datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen da.

Cookieak doitzea 8-1-6 menua

Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira.

- **Borrar cookies:** gordetako eduki guztiak ezabatzen ditu.
- **Comprobar cookies:** cookieak erabili diren edo ez egiaztatzen du.

Segurtasun-ziurtagiriak 8-1-7 menua

Erabilgarri dauden ziurtagirien zerrenda bistaratzen da aukera honetan.

- **Autoridad:** telefonoan gordetako baimen-ziurtagirien zerrenda bistartzeko aukera ematen du.

- **Personal:** telefonoan gordetako ziurtagiri pertsonalen zerrenda bistartzeko aukera ematen du.

Profilak leheneratzea 8-1-8 menua

Profilak jatorrian zeuden bezala doitzeko aukera ematen du.

Arakatzaillearen bertsioa 8-1-9 menua

WAP arakatzaillearen bertsioa bistaratzen du.

SIM zerbitzua 8-2 menua

Zure zerbitzu-hornitzaileak aplikazio bereziak (hala nola, etxe-bankua eta burtsako informazioa) eskain ditzake SIM txartelaren bidez. Zerbitzu horietako batean erregistratu bazara, zerbitzuaren izena hasierako menuaren amaieran bistaratu da. Servicios SIM menuarekin, zure telefonoa prest dago etorkizunerako eta zure hornitzailearen zerbitzu berriak onartuko ditu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Jokoak & beste zenbait

9-1 menua

Nire jokoak & beste zenbait

9-1-1 menua

Menu honetan, telefonoan instalatutako Java aplikazioak administratzen dira. Deskargatutako aplikazioak exekuta edo ezaba ditzakezu, edo konexio-aukerak ezarri. Deskargatutako aplikazioak karpetatantolatzen dira. Sakatu ezkerreko funtzio-tekla [Selec.], aukeratutako karpeta irekitzeko edo  hautatutako midlet-a abiarazteko. Ezkerreko funtzio-tekla  Menú] erabiltzean, menu hauek daude aukeran:

❗ **Oharra** Jokoa deskargatu ondoren gordetzeko, sakatu OK () eta telefonoan gordeta geratuko da.

- ▶ **Iniciiar:** hautatutako aplikazioa abiarazten du.
- ▶ **Información:** aplikazioari buruzko informazioa bistaratzen du.
- ▶ **Opcs.:** Java aplikazio batzuetarako datu-konexioa ezarri behar da. Hautatu aukera hau konexio-aukerak ezartzeko.

- **Siempre:** konexioa une horretan ezartzen da, jakinarazi beharrik gabe.

- **Pedir datos:** aplikazioak konexioa egin aurretik, egiaztatzea eskatuko da.

- **Nunca:** ez da konexiorik egiteko aukerarik ematen.

❗ **Oharra** Aurrez instalatutako karpeta edo karpetako jokoa ezin dira ezabatu edo ezin zaie izenik aldatu.

Java(TM) Sun Microsystems-ek garatutako teknologia da. Netscape edo MS Internet Explorer arakatzailer estandarrekin Java azpiprograma deskargatuko zenukeen bezala, Java MIDlet deskarga dezakezu WAPerako, telefonoa aktibatuta duzula. Zerbitzu-hornitzailearen arabera, Javan oinarritutako programa guztiak (adibidez, Java jokoak) telefonora deskarga daitezke, eta bertan exekutatu. Deskargatu ondoren, Java programa jokoan menuan bistara daiteke, baita Java hauta, exekuta edo ezaba daitezkeen edozein menuan ere. Telefonoan gordetako Java programaren artxiboek .JAD eta .JAR formatua dute.



❗ **Oharra** • JAR artxiboa Java programaren formatu konprimitua da; era berean, JAD artxiboa deskripzio-artxiboa da, informazio zehatza duena. Saretik, deskargatu aurretik, JAD artxiboaren deskribapen zehatz guztia ikus daiteke.

- Lengoia estandar batean oinarrituta egonda ere (J2ME), Java aplikazio guztiak ez dira merkatuan dauden telefono guztiekin bateragarriak; izan ere, telefono-modelo bakoitzerako liburutegi espezifikoak erabil daitezke. Baliteke softwarea blokeatzea edo piztea bakarrik eskuliburu honetako telefonorako zehazki sortutako Java aplikazioak deskargatzean; beraz, ezinbestekoa izango litzateke telefona "berrabiaraztea". Arazo horiek aplikazioak bateragarriak ez direlako gertatzen da, ez produktua akatsa duelako.

❗ **Erne** J2ME (Java 2 Micro Edition) oinarritutako programak telefono-ingurunean bakarrik exekuta daitezke. J2SE (Java 2 Standard Edition) oinarritutako programak PCaren ingurunean bakarrik exekuta daitezke.

Profilak

9-1-2 menua

Menu honek Interneteko menuaren konfigurazio bera du. Gainera, aplikazio berriak deskargatzeko, WAP konexioa behar da.

Irudiak

9-2 menua

Ezkerreko nabigazio-tekla  [Opciones] sakatuta, aukera hauetara sar zaitezke.

- ▶ **Como tapiz:** hautatutako irudia horma-paper gisa ezar daiteke.
- ▶ **Escribir mensaje con foto:** deskargatutako irudia MMS bidez deskarga daiteke.

Soinuak

9-3 menua

Ezkerreko nabigazio-tekla  [Opciones] sakatuta, aukera hauetara sar zaitezke.

- ▶ **Establecer como tono:** hautatutako soinuarekin txirrin-tonua ezar daiteke.
- ▶ **Nuevo SMS/Escribir mensaje con foto:** melodiaren soinua SMS edo MMS bidez bidal dezakezu.

Zure telefono mugikorrerako osagarri ugari dago. Zure komunikazio-behar pertsonalen arabera hauta ditzakezu. Galdetu erabiltzeko modua hornitzaileari.

Bateria estandarra



Entzungailuak

Telefonora konektatzen duzunea hartu gabe hitz egin dezakezu.



Kargagailua

Kargagailu honekin zure mugikorraren bateria karga dezakezu.



Datuetarako/CDrako irtenbidea

Zure telefonoa ordenagailu batera konekta dezakezu, datuak batetik bestera pasatzeko.



Oharra • Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.

- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Osagarriak desberdinak izan daitezke eskualdeen arabera. Mesedez, galdetu zure konpainiari edo tokiko agenteari informazio gehiago behar izanez gero.



Orokorra

Produktuaren izena: F2400

Sistema : GSM 900 / DCS 1800

Giro-tenperaturak

Max: + 55 °C

Min: - 10 °C

Hornitzaileari buruzko xehetasunak

Izena

LIS Electronics Inc.

Helbidea

LG Electronics Inc. LG Twin Towers 20,
Yeouido-dong, Ycongdoongpo-gu Seoul, Korea 150-721

Produktuari buruzko xehetasunak

Produktuaren izena

GSM 900 1 .DCS 1800 banda dualeko telefonoa

Modeloaren izena

F2400

Marka

LG

Aplikatu beharreko estandarrei buruzko xehetasunak

R&TTE 1999/5/EE zuzentaraua

EN 301 489-1 V1.4.1(2002-08), EN 301 489-7 V1.2.1(2002-08) EN ~: 2000

EN 50360 2001, EN50361 2130 EN 300 328 V1.4.1 (2003) T851.010-1 V5.10.0

GC FCC 3.16.0ren arabera hautaketa, EN 901 511 V.9.0.2(2003)ren baldintzak barne

Informazio gehiago

BABTk egiaztatu du goiko estandarren arabera adostasuna, hauen bidez: (NC/12381) ziurtagiria, GSM proba-txostena (zk.: WG613452/01, WG813450/03), EMC proba-txostena (zk.: HCT-CO5-0205), segurtasunaren proba-txostena (zk.: ITYA0105485) SAR proba-txostena (zk.: TCMA0804765) eta Bluetooth (m. HCT- RF05-0201).

Adierazpena

Honen bidez, lehen aipatu den eta adierazpen honi dagokion produktuak aipatutako zuzentarauak eta estandarrak betetzen dituela ziurtatzen dut.

LG Electronics Inc. Amsterdamgo bulegoa
Veluwezoom 15, 1327 AW Almere, Herbehereak
tel.: +31 - 36547 - 8 940,
Helbide elektronikoa:

Izena

Emisio-data

Jin Seong, Klm Director

2005eko apirilaren 7a

Ordezkararen sinadura



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Memo

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Memo

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

This image shows a full page of primary-ruled paper designed for handwriting practice. It features two vertical columns of horizontal dashed lines. Each column contains 10 rows of these lines, providing a structured space for students to practice their letter formation and alignment. The paper is otherwise blank, with no margins or additional markings.

Memo

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



mèvil

